

Eusebio Erkiagaren mendeurren-jardunaldia

Bilbo, 2012-XI-30

Euskera. 2012, 57, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Gutziz atsegingarria da niretzat egun zuen aurrean hitz egitea, Euskaltzaindiak ohoratzen baitu bere kide gogoangarria, Eusebio Erkiaga idazle lekeitiarra. Hartara, nik hemen ikusten ditut bildurik, bateko, bere familia eta ondorengoak; besteko, Euskaltzaindiaren kideak eta nola ez, Deustuko Unibertsitatearen irakasle eta ikasleak. Horretara ere, elkarrekin loturik agertzen dira Eusebio Erkiagaren lana eta etorkizuna, egungo ikasle gazteek lekukotza ezin hobea izan dezaten, jardunaldi honen bitartez, haren figurari buruz. Eskerrak, beraz, hona hurreratu zareten guztioi eta bereziki, Euskaltzaindiaren Literatura Batzordeari, ekitaldi hau antolatzearren. Ezin baztertu, bestalde, hauxe dela lehen emaitza, Deustuko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak berrikitan itxuraldatu duten lankidetzat hitzarmenaren aldetik. Eskerrak, beraz, Deustuko Unibertsitateari, areto eder hau gure esku jartzearren.

Zaila da laburbiltzea Eusebio Erkiagaren esan-eginak lerro soil batzuetan. Zailago, nonbait, haren lorratza jardunaldi batean laburtzea, Erkiagaren lanak gai eta arlo asko ukitu zituelako bere bizitzan zehar.

Eusebio Erkiaga lekeitiarra ezagutu genuenentzat eta haren esku-erakutsiak jorratu ditugunentzat, poza areagotu egiten da, egun gure artean da goen Labayru Ikastegiaren eskutik baitugu, modu erraz batean, haren tesguintzan, olerkiz zein hitz lauz, murgiltzea.

Literaturaz eta euskalgintzaz aparte, Eusebio Erkiagak berebiziko zina egin zuen euskararen Akademiarekin eta urte luzetan zuzendaritza kide izan

zen, diruzaintza lanetan. Horra, bada, beste arrazoi bat, gogoratzeko eta omentzeko.

Urteak joan dira Begoñako Elizan azken agurra eman genionetik. Haren gomuta, alabaina, bizi-bizirik dago gure artean, jardunaldi hauek egoki frogatuko dutenez.

Mila esker, eta has gaitezen lanean!

Araibar zalduna tradizioan sustraiturik

Araibar zalduna enraizado en la tradición

Araibar zalduna enraciné dans la tradition

Araibar zalduna rooted in tradition

TOLEDO LEZETA, Ana M.

Euskaltzain osoa. Deustuko Unibertsitatea

Noiz jaso:2013-01-30

Noiz onartua:2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 543-570. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eusebio Erkiagaren *Araibar zalduna* (1962) eleberririk tradizioan ditu sustraiak. Mende erdi luzean euskal eleberrigintzak erabilitako konta-teknikez baliatuz, ezaguna zen mundu-ikuskera adierazten du. Alabaina, bada osagai berririk: tradizio horrek ezkutuan gordea zuen gai bati heltzen dio, pertsonaia nagusia hirian kokatzen du, ereduzkoa ez denak kontakizuna harrapatzen du: hala gertatzen da pertsonaia nagusiaren izaerarekin eta istorioaren berri emateko erabilitako hizkerarekin. Osagaiok aski izan ziren garai hartako euskaltzalaren batzuk asaldatzeko: dirudienez, ordu arteko euskal eleberrigintzak erakutsitako decorum-etik urruntzen atzematen zuten.

Hitz-gakoak: bizimodu lizuna, giro hiritarra, pertsonaia-tipoa, landa-giroa, birjintasuna, izen ona, berrerosi.

La novela *Araibar zalduna* (1962) de Eusebio Erkiaga hunde sus raíces en la novelística tradicional vasca. Haciendo uso de las mismas técnicas narrativas que ha empleado dicha novela desde finales del siglo XIX, sigue manifestando la misma cosmovisión. Sin embargo, algunos elementos novedosos hacen su aparición: recurre a un tema que llevaba siglos postergado, sitúa al protagonista en un ambiente urbano, lo modélico deja de ser dominante en la narración: ni la naturaleza del personaje protagonista, ni el lenguaje utilizado en el relato discurren por ese cauce. Estos ingredientes fueron suficientes para generar cierto malestar entre algunos vascófilos de la época: al parecer la veían desviándose del decoro que hasta entonces había caracterizado a la novela vasca.

Palabras clave: vida lujuriosa, ambiente urbano, personaje-tipo, ambiente rural, virginidad, fama, redimir.

Le roman *Araibar zalduna* (1962) d'Eusebio Erkiaga plonge ses racines dans le roman traditionnel basque né à la fin du XIX^e siècle. L'auteur en utilise les techniques narratives et montre la même vision du monde. Pourtant quelques éléments nouveaux font leur apparition : il recourt à un thème mis à l'écart pendant des siècles, il situe le personnage en milieu urbain, le modèle n'est plus dominant dans le récit : ni la nature du personnage ni le langage utilisé dans le récit. Ces ingrédients furent suffisants pour provoquer un malaise chez certains bascophiles de l'époque : il semble qu'ils voyaient là un changement de décor dans ce qui avait jusque là caractérisé le roman basque.

Mots-clés : vie luxueuse, milieu urbain, personnage-type, milieu rural, virginité, renommée, rachat.

Eusebio Erkiaga's novel *Araibar zalduna* (1962) has its roots in tradition. Using techniques honed by novelists over half a century, it presents us with what was a well-known

world-view. However, there is a new component: he tackles a topic the tradition had kept hidden away. He places the main character in a city. What is not exemplary dominates the story: this occurs with the main character's nature and the language used to tell the story. These components were enough to anger some Basque enthusiasts of the time: it seems they considered that the decorum shown by the Basque novel until then was being abandoned.

Keywords: ewd living, urban setting, stereotypical character, rural setting, virginity, good reputation, redemption.

Araibar zaldunak tradizioan ditu erroak. XIX. mendearen bukaeran jaiotako euskal eleberrigintzaren sustraietan elikatzen da. Kontaketa-prozedura berdinez baliatuz, mundu-ikuskerara bera adieraziko du. Hala ere, eleberrigintza honek erabili ez zituen osagai batzuk gehitzen ditu: dela ezkutuan gorde den gai bati heldu izana, dela pertsonaia nagusia bere bizitzaren aldi batean eredu-zko bizimodutik urrun ibili izana, dela hiztegi-mailan mailegu gordin-gordinei muzin ez egitea... Gehitutako osagai hauekin ere, tradizioan ditu erroak. Elikatu duten erro batzuk, XIX. mendea baino lehenagoko denboretan eratutakoak dira, nahiz eta XIX. mendean ez ezik, XX. mendearen bigarren erdian bertan ere oraindik ihartu gabe egon.

Eusebio Erkiagak mamitutako sorkaria, ahalik eta modurik osoenean aztertzea jomuga, bi ikuspegitatik atzemango da. Batak, eleberriak kontaturiko istorioan eta, bereziki, istorio hori eratzeko moduan erreparatuko du; besteak, ordu arte garatutako eleberrigintzaren barrutian kokatuko du.

Esan bezala, elikatu duten erro batzuen sakonerak XIX. mendearen mugak igarotzen ditu, antzinakoagoak ziren garaietan ere indarrean zeudela nabarmena delako. Erro hauetakoren batek euskal literaturan duen lekukotasunik zaharrenean ere joko da, agerian jartzeko *Araibar zaldunak* zenbateraino duen euskarri tradizioa. Gisa honetan jokatzuz, betiere, modu zehatzagoan neurtu ahal izango da zer zegoen jadanik esana euskaraz eta jasotako ondare horri zer erantsi zion Erkiagaren *Araibar zaldunak*.

1. *Araibar zalduna*: 6. eta 9. aginduek eragindako nahaspilak

1958ko Domingo Agirre nobela-saria irabazi eta, handik lau urtera argitaratutako Eusebio Erkiagaren *Araibar zalduna* (1962) eleberriak jorratzen duen gaia 6. eta 9. aginduek eragindako nahaspilak dira. Hona, eleberriak kontatzen duen istorioa ixteko erabiltzen diren azken hitzak:

Zenbat naaspil gutxiago ez litzaken mundu ontan izango seigarren eta bederatzigarren aginduak zintzoago beteko ba genitu!... Eta zen-

bat anima ez litzaken zuzenik zeruan sartuko, betiko su garretan ganoragabe ondatu bearrean!...¹

Bukaeran ez ezik, hasieran ere, eragiten dute jardunik agindu horiek. Eliztar gazteek «Seiko» ezizena jarria diote beren parrokiako apaizetako bati. Seigarren agindua sermoi guztietako gai izatetik datorkio goitizena. Apaiz jatorra da, kontalariaren aburuz:

Gazteen esanak gorabeera, ez ote zukean arrazoi mamirik, «Seiko» apaiz jator arek? Seigarren agindua eta bere aizpatxo bederatzigarrena, a zer nolako bikote urduria!... (8)

«Seiko» apaiza aurkeztu aurretik, lehen orrialdean bertan Andertxoren aitonaren heriotzaren berri ematen da. Heriotzaren berriarekin batera desagertu egiten da kontaktetik Andertxoren aitona, *Araibar zalduna* eleberririk kontaturiko istorioa amaierara heltzean, berriro agertzeko. Azken agerrera horretan argituko da Erkiagak harilkatzen duen matazak Andertxoren aitonari egotzitako egitekoa: 6. eta 9. aginduek eragindako nahaspilen gaia oraindik gehiago nabarmendu. Istorioa garatzen deneko orainaldian ez ezik, lehenaldian ere egon da seigarren agindua eta horren ahizpa bederatzigarrena urratu duenik: lehen orrialdean aipatutako Andertxoren aitonak, Martin Usategi ta Astepek, izan zituen hiru seme-alabak lekuko. Hiru anai-arrebek aita bera dute, ez horrela ama. Kontatutako istorioaren bukaera arte senide direla ez dakiten hiru anai-arreba horietako bat eraikitzen da *Araibar zalduna* eleberriko pertsonaia nagusi: Manu Araibar, Martin Usategik ez-kontzaz kanpo izandako ondorengoetako bat.

Notarioak Martin Usategiren azken borondateak azaltzeko antolatutako bileran jakingo dute ama desberdinengandik jaiotako aita beraren seme-alaba direla. Notariotzan berria jasotzen dutenean, «Seiko» apaiza ere han dago. «Seiko» apaizarentzat 6. eta 9. aginduen urraketaren lekukotasun bat gehiago.

Martin Usategi pertsonaiak eragindako berbaldiarekin hasi eta bukatzen den istorioaren erdigunean, honen seme dela ez dakien Manu Araibar zalduna dago. Beraz, 6. eta 9. aginduak bete ez zituen aitaren seme da Manu

¹ Erkiaga, E., 1962, *Araibar zalduna*. Zarautz : Itxaropena Argitaldaria, 171. Argitalpen horretatik jasoko dira aurrerantzean egingo diren aipamenak.

Araibar. Aitak hazitako eta hezitako semea ez izanagatik, joera berberaren jabe izana da, jatorria argitzen diotenerako gainditua badu ere.

«Ez duzu ekintza lizunik burutuko» dio Jainkoaren legearen Hamar Agindu-
duetako seigarrenak; «ez duzu pentsamendu edo ekintza lizunik onartuko»,
berriz, bederatzigarrenak. Dirudienez, Martin Usategik ez zituen agindu ho-
riek zuzen-zuzen bete. Honen seme Manu Araibarren kontzientzian ere ez
dute kezkarik sortzen eta agindu horiei jaramonik egin gabe biziko da, mai-
temintzen eta ezkontzen den arte: orduz gero, ez ditu tentazio-iturri.

Honela bada, seigarren eta bederatzigarren aginduek eragindako nahas-
pilak ditu gai Erkiagak *Araibar zalduna* eleberrian: gai horrekin irekitzen eta
ixten du eleberria, tartean agindu horiek betetzen ez dituen pertsonaia bati
emanaz nagusitasuna.

Jainkoaren aginduon urraketa gaia ez da izan emankorra euskal lite-
raturan, aitzitik, ezkutatzeko joera nabarmendu da. Koldo Mitxelenak Bi-
lintxen bertsoei buruz ziharduela, honela zioen:

Sus versos son excepcionales en una literatura recatada en que los
poetas huyen avergonzados de toda confesión demasiado íntima.²

Gauza jakina da euskal literatura oso begiratu, lotsa onekoa izan dela.
Lizunkeriak inoiz harrapatu bazuen euskal idazketa, Etxeparek moldatutako
bertsoetara jo behar. Geroztik, herri-literaturaren barrutiko adierazpenen
batzuetara mugatu zuen bizilekua, barruti landutik zeharo desagertuz. Hala
izan da XX. mendearen bigarren erdira arte. Zeresanik ez, kontakizun ida-
tziaren eremua behar bezalakotasunaren arauari eutsiz garatu da. Lizunkeria
edo sexuarekin zerikusia izan zezakeen oro ezkutuan gorde da.

Lizunkeriak, lehen-lehenik, Jon Etxaiderekin egingo du agerrera: aurre-
na, *Alos-torrea* elezaharrean (1950) eta *Joanak-joan* (1955) eleberrian, gero.
Nekez saihets zezakeen lizunkeria Etxaidek, Piarres Topet «Etxahun»en
bizitzan oinarritzen zen eleberri historikoa moldatzean.

Lizunkeriari beste hutsegite batzuk ere batzen dizkio Etxaidek aurkeztu-
tako Etxahunek: maltzurkeria, doilorkeria, bortizkeria... Horra, Etxaidek

² Michelena, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid : Minotauro, 132.

euskal kontagintzara ekarritako nobedadea XX. mendearen bigarren erdiari hasiera ematearekin batera. «-Keriek» menperatzen duten pertsonaia da *Joanak-joaneko* Piarres pertsonaia nagusia. Hori ez bezala, «-keria» bakarrak harrapatuta bizi da Eusebio Erkiagaren *Araibar zaldunako* Manu Araibar: lizunkeriak. Pentsamendu eta ekintza lizunek gobernatzan duten pertsonaia nagusia taxutzea hautatu du Erkiagak, ez beste araurik urratzen ez duelako Araibar zaldunak, baizik eta egileak beste arau-urraketak ez nabarmentzea erabaki duelako. Behin batean behintzat iruzurgile ere bihurtu zen Araibar. Haatik, Erkiagak lizunkeria baino ez du azpimarratu nahi izan.

Zalantzarik gabe, iruzurrean aurkezten du kontalariak Araibar zalduna, Atxaga herritxoko bi arrantzalaren laguntzarekin kontrabandoa egiten duenean. Iruzurrari, gainera, kontrabandoz eskuratutako gaiaren nolakotasuna gehitzen zaio. Gai horren eginkizuna gaixoen oinazea arintzea izanagatik, ez da hor agortzen bere erabilera-barrutia:

Toxikoak ziran. Opio ta aren alaba morfina ta abar. Gai auen za-leak ugari baitira, eri egon ezarren, aien bidez ametsezko zeruan sartu nai dutenak. (152)

Diru-estutasunik gabe bizi den pertsonaia da Araibar zalduna, diru-iturri dituen zenbait negoziari esker. Ez da, ordea, bizibidea kontalariaren arreta erakartzen duen alderdia. Aski du pertsonaiaren estatusa adieraztearekin: gizarte-maila, diru-egoera... Ohiko lan-jardueraz emandako argibide labur eta urriekin modu nabarmenean kontrastatzen du, kontrabandista bihurtu zeneko gauari eskainitako arretak: zehaztasun dezenterekin kontaktzen da. *Araibar zaldunan* xehetasunik handienarekin jasotzen den ekintza da. Alderdi horretatik begiratuta, kontrabandoaren pasadizoak betetako leku narratibo zabalak, ohiko lan-jarduerak betetakoarekin ez ezik, lizunkeriaren adierazle diren maite-jokoek beraiek betetakoarekin ere kontrastatzen du. Ez dira, inondik ere, horrenbeste xehetasunekin kontaktzen pertsonaia beraren maite-jokoak. Haatik, maiztasunak bereizten ditu kontrabandoaren pasadizoa eta maite-jokoak. Behingoa den arau-urraketa da bata; bestea, ordea, etengabea.

Droga kontrabandoz sartzearen negozioarena behin baino ez du kontaktzen kontalariak. Egin ere, behin baino ez zuten egin:

«Drogaz» beterik daude. Diru asko balio dute. Egin dezagun bada, lendabizikoa ta azkena, arrisku aundiko zera da-ta. (147)

Maiztasunaren ikuspuntutik, behin baino gertatu ez den eta behin baino kontaktzen ez den jazoera honekin kontrastatu egiten du Araibar «konkista-tzaile»aren jarduerak. Bata bestearen ondotik datoz «konkistak»: errepikatzen den jarduna da. Errepikatzen den jardun horren berri emateko, kontaketa errepikakorrera jotzen da: «konkista» berri bakoitzaren inguruko zertzeladak pilatuz doa kontalaria. Xehetasun gehiago edo gutxiagorekin harreman berri bakoitza aipatzea hautatu duen kontalariak beste jokabide bat hartzen du Araibarren bizibideari dagokionez: ohiko lan-jarduera aurkeztu eta horri behin batean gehitu zitzaion kontrabandoarena erantsi.

Istoria testura eramateko egindako aukeren ondorioz, Erkiagak pertsonaia-tipo bat mamitzen du: pentsamendu eta ekintza lizunek harrapatuta bizi den pertsonaia irudikatzen eta ordezkaten du Manu Araibarrek. *Araibar zalduna* kontakizunean zehar pertsonaia nagusia neskatan egiteko estrategiarik aiposenetan pentsatzen eta estrategiok gauzatzen azaltzen da une oro, maitemindu ostean ezkondu eta senar eredugarri bihurtzen den arte.

Jainkoaren aginduak ez ezik, gutxienez, ogasunaren aginduren bat ere urratzen du Araibarrek, baina Erkiagak, arau bat baino gehiago urratzen duen pertsonaia nagusiari bizitza eman arren, arau-urraketa bakarra nabarmentzea hautatu du: Jainkoaren 6. eta 9. aginduena.

1.1 Gertaera-lekua

Bilbon kokatzen dira pertsonaia nagusiaren ibilerak. Hiriko paisaiak bere dituen osagaiez inguraturik bizi da: galaiak, beribilak, «berebillen klaxon madarikatuak» (66), dantza-etxeak, arropa-dendak, polizia-etxea, arropazaindegiak, hotelak, parkeak, diru-etxeak, teatroa, zinema... Adierazle ugarriren bidez itxuratzen da giro hiritarra: film-ei aipu bat baino gehiago egiten zaie³, baita garai horretan ospetsua zen zine-izarren bati ere: «B.B» (112),

³ «Ain zuzen, ikusi al duzu oraintsu *Le défroqué* film izugarri hori», 125.

Brigitte Bardot, hain justu... Hiriak olgetarako egindako eskaintzaz gozatzen azaltzen dira *Araibar zalduna* eleberriko pertsonaiak.

Manu Araibarrek hiria bizileku izateak badakar nobedaderen bat euskal eleberrigintzara, nahiz eta euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia hiritarra ez izan, horretan Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberriko Leturiak aurrea hartu ziolako. Nolanahi ere, Manu Araibarrek zerikusi gutxi du Leturiarekin: biak pertsonaia hiritarrak eta nahiak dituztenak izateaz harantz, batere ez, erantsiko nuke. Txillardegik hautsi egin zuen aurreko eleberrigintzak adierazitako mundu-ikuskerarekin, Erkiagak, ostera, jarraipena eman. Jarraipena eman, ordea, aldaeraren bat gehituz: aurreko eleberrigintzaren tradizioan ez zegoen hiria bizilekutzat zuen pertsonaia nagusirik. Horrela, eleberritradizionalaren sustraietan elikatuz, nahasketa berezia egiten du erabilitako osagaietan.

XX. mendearen 50. urteetan Etxaideren eleberrigintza agertu arte, pertsonaia nagusi eredugarriak bakarrik aurkeztu ditu euskal eleberrigintzak. Baziren pertsonaia ez eredugarriak ere eleberritradiziotan, baina, halako izaez zutenak, salbuespenik gabe, bigarren mailan gelditzera derrigortuta zeuden. Pertsonaia nagusi eredugarriak, beti, landa-giroa zuen bizileku.

Balore-sistema bat hobesteko leku da eleberria. Hainbat eleberrigile (Txomin Agirre, Toma Agirre, Jean Pierre Iratxet...) landa-giroa / giro hiritarra aurkakotasunaz baliatzen da irakatsi nahi duten ikasgaia argiago helarazteko. Hobesten duten balore-sistema landa-giroko Euskal Herrian gordetzen da modurik tinko eta bikainenean: hortik at galtzeko arrisku bizia dago. «Gaiptoak or bealdean bizi dira, diotenez; zenbat eta berago, gaiptoagoak; zenbat eta erri andiago, okerragoak eta ugariagoak»⁴ zioen Txomin Agirreraren *Garoako* (1912) Joanes artzainak, eredugarrietan eredugarriena den euskal eleberrigintzako pertsonaia nagusiak. Ondorengo eleberrigintzan bada pertsonaiarik Joanes zuzen zebilela erakutsiko duenik. Hala, Toma Agirreraren (Barrenso) *Uztaroko* (1937) Malentxoren kezka eta larritasunek hiria dute jatorri; izan ere, Donostian hasi zen egiten etxeok onartuko ez zituzketen gauzak: hiriak galbideratu zuen. Ira-

⁴ Agirre, D., 1981, *Garoa*, Oñati: Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, 25.

txeten *Anttoneko* (1946) Marixanek hiria behar zuen eta ezbeharra baino ez zion ekarri. Urte berean, 1946an, J. A. Irazustaren *Joañixion* ere bada «kalea» arbuiatzeko gonbitik. Panpara abiatu aurretik bere amaren aho-tsean Joañixiok entzuten duena lekuko: «Ola batean sartu ta osasuna galdu. Ori naiko ez dala kalean anima galdu. Kaletik datozen soñuk ez dira gure oituerantz atsegin».⁵ Eredugarria ez den pertsonaia landa-girotik kanpo kokatzean, Erkiagak bat egiten du tradizio honekin: XX. mendearen lehen erdiko euskal eleberrigintzak aldarrikatua du giro hiritarrak okerrerako bideak erakusten dituela. Alabaina, aldarrikapen horrekin bat egin izanagatik, alderdi horretatik aurreko eleberrigintzak adierazitako ikuskera bera azaldu izanagatik, osagai berri bat sartzen du: pertsonaia nagusia bera kokatzen du giro hiritarrean, ordu arte bigarren mailako pertsonaia izana zen giroan. Aurreko eleberrigintzan ezinbestez behar zuen izan landa-giroa bizileku pertsonaia nagusiak: pertsonaiak eredugarri izateko derrigorrezko zuen eskakizunetako bat zen.

Aintzat hartzeko modukoa da Erkiagak ekarritako osagai berria; izan ere, aurreko eleberrigintzak erakutsitako ikuskerari eusten dion arren, badu eraginik aldaketak. Adibidez, ordu arte eskuratu gabe zeukan estatusa lortuko du ereduak ez den jokabidearen adierazpenak. Pertsonaia nagusiek betetzen dutenez kontakizunaren zati nagusia, ereduak zenak bereganatzen zuen tarterik handiena iraganean; orain, ostera, ereduak ez denak hartzean leku nagusia, luze eta zabalago agertuko da baztertu beharreko portaera. Azken batez, aurreko eleberrigintza eruditik urrutiratzen ziren pertsonaiak aitzakia huts bihurtzen ziren eredu gehiago nabarmentzeko; orain, aitzakia izateari utzi, eta lehen mailaz jabetzen da joera makur baten erakusle den pertsonaia.

Eleberrigintza tradizionalak hobetsitako balore-sistemak, besteren artean, Jainkoaren Legearen Hamar Aginduak gordetzea eskatzen zuen, noski: landa-giroan bizi ziren pertsonaia-protagonistek zintzo asko gordetzen zituzten hamarrak. Hala izan da XX. mendean zehar, Etxaidek landa-giroan bertan aurkitu arte, ustez euskaldunaren balore-sistema izan

⁵ Irazusta, J. A., 1946, *Joañixio*, Buenos Aires: Editorial vasca Ekin, 34.

beharko zukeena urratzen zuen pertsonaia nagusia. Erkiagak, ostera, Etxaide baino lehenagoko eleberrigintzarekin bat eginaz, landa-giroa babesten jarraitzen du: hiria du bizileku Araibar zalduna bekatariak. Bilbon, behin edo behin Donostian... agertzen da Araibar konkistatzailea. Aldaketa, konkistaz konkista ibiltzea behin betiko alboratzea, udatiarrak erakartzen dituen leku batean gertatzen da: Atxagan, hain justu. Atxaga horrek zein erreferente geografiko duen asmatzea, ez da ariketa zaila, kontalariak utzitako arrastoei esker: buruen-buruenik, antzarren festaren ospakizunak salatzen du. Erreferentea agerian utzi izanagatik, badu zalantzarik herri ala hiri kategoriari atxikitzerakoan. Behin edo behin, «Atxaga erritxo» (100) dio, hurrena, «erri koxkor» (133); baina, baita «iritxo» (135) ere. Dena den, sailkatze mailako zalantzak zeharo gainditzen ditu bertako giroa itxuratzean: giro hiritarra duen Atxaga taxutzen du. Hortaz, Manu Araibarren bizitzako aldiak, nola bizimodu lizunarena, hala maitemintzearena eta aurreko bizimodua bertan behera lagatzearena, giro hiritarrean garatzen dira.

Ezagunak zituen lekuak aukeratzen ditu Manu Araibarren ibilera kokatzeko. Bi gertaera-lekuak Erkiagaren bizitzari lotuak daude. Bizileku izan zuen Bilbon bizi da Araibar; sorleku zuen Lekeition (Atxaga, kontaketan) igarotzen du uda zaldunak. Araibar lizunkeriara emana bizi den aldia Bilbon kokatzen duen bitartean, konbertsiorako, Atxaga hautatzen du. Hemen, Agurnez maitemindu eta, udaldi luzearen ostean, Bilbora itzuli eta gutxira, ezkondu eta senar leial bihurtuko da.

Gisa honetan, eredugarria ez zen pertsonaia nagusia landa-giroan aurkitu zuen Etxaideren aurrean, Erkiagak, Etxaide baino lehenagoko eleberrigintzarekin bat eginaz, landa-giroa garbi gordetzen jarraitzen du: pertsonaia nagusi andrezaleak hiria du bizileku. Landa-giroan Araibar zaldunaren biktima den Loli Mena bezalako pertsonaia inozoak egon daitezke, ez horrela, pertsonaia lizunak. Pertsonaia inozoa harrapakin erraza da hiriaren paisaiaren osagai diren lakioetan erortzeko. Landa-giroa jatorri izan eta hiriak barneratzen dituen lakioetan erortzen denak arau-urraketak eragindako zorra kitatu beharko du. Zorra ordaindu ondoren, ordena berrezarrita geratzen da. Hala erakutsiko dute Loli Menaren bizipenek eta amaierak.

Loli Menaren aurretik izan du «maiteñorik» Araibarrek:

Ez zan, noski lendabizikoa neskatxa ura. Izan zituan bai, izateko aintzindari ta aurretikoak. Nolatan bada alako Apolo bat, emakume batekin ase?...

Aren maiteñoa, orduan, aldi artan, Loli zan. Loli Mena. (12)

Istorioaren denboraren iraganaz egindako laburpen horren bidez, andre-zale ezaugarria egotzi eta Araibarren orainaldian kokatzen da kontalaria, beste sexukoekin dituen harremanez aurreneko xehetasunak emateko.

Loli Mena «erri koxkor batetik» (14) Bilbo hirira jostunaren ofizioa ikas-tera joana da: bere esanetan, «baserritar bat besterik ez» (24). Herri koxkor bateko baserritar hori limurtuko du Araibar zaldunak eta haurdun suertatuko da. Orduan, haurra sabelean daraman horrek irtenbide bat baino ez du ikusiko: Araibar zaldunarekin ezkondu. Irtenbideak huts egitean, azken irtenbidera joko du: bere buruaz beste egin.

Landa-giroan hazi den Loli Menak arau bat urratu du. Jakin ere badaki arau bat urratu duela eta egoerari aurre egin beharrean dela. Lehen-lehenik, ezkontzan dakusa arau-urraketa sorrarazitako arazoaren konponketa. Helburua erdiesterik izan ez duenean, heriotza-zigorra ezarri bere buruari, eta trenbidera bere burua botata gauzatuko du.

Loli Menak urratu duen araua ez da hirian bakarrik urratzen, jakina. Errealitatearen azterketa soziologikoak erakutsiko luke era horretako gertaerak landa-giroan ere oso ezagunak izan direla. Baina, euskal eleberrigintzan, gaitzen jatorria giro hiritarrean zegoen eta egoten jarraitzen du. Landa-giroan gordetzen den balore-sistema kolokan jar dezakeen leku arriskutsua da hiria. Hiriak balore-sistema horretako osagairen baten urraketa balekar, kontalariak ezarritako zigorra bete beharko du urratzaileak. T. Agirrerren *Uztaroko* Malentxo ereduzko portaeratik urrutiratu zen hirian eta moja sartuaz ordainduko du arau-urraketa; Iratxeten Marixanek gosea pairatuz eta iraganean ezkontzeko hitza emana zion eta berak baztertu zuen gizonari jatekoa eskatuz, premia gorrian dagoelako; Loli Menak bere buruaz beste eginaz.

Sexu berekoak dira hiru eleberriotan hiriak galbidera daramatzan pertsonaiak: hirurak emakumeak dira. Malentxorentzat Donostia, Marixanentzat

Baiona eta Loli Menarentzat Bilbo bihurtzen dira zoritxar-eragile. Guztiek landa-giroa sorleku izanik, asmoren batek hirira eraman eta gero, zigorra jaso dute: inori ez zaio ondo atera hirian hasitako abentura.

Loli Menak «neskatasuna» galdu zuen Araibar zaldunarekin Bilbon:

Gazte, berme, garbi eldu izan zan iri nagusira, eta an galdu bide zituan lendabiziko neskatasun ta garbidoaiak. (81)

Dirudienez, «lendabiziko neskatasun ta garbidoaiak» baino gehiagorik galdu zuen, galbidea ere erakutsi baitzion hiriak. Manu Araibarrek haurra berea gabe, beste norbaitena zela gaineratu zionean, Lolik berak aitortzen du:

gordin eta billoiz esan zion egia zitekeena. Loli-k, beste gizonen batekin edo geiagorekin izan zuan soin-jokoa; egia zan. (83)

Erkiagak, kontaktaren une batean neskatzak sailkatzera jotzen du:

Neskatzax ugari zegoan inguruetako maitxoetan. Guztietarikoak ziran, zintzoak, ezbaiekoak, erabilliak... (82)

«Erabillien» kategorian kokatuko litzateke Loli Mena.

Gizonekin «soin-jokoa» ibili eta ezkondu gabe haurdun suertatu den Loli Mena zigortzen duen kontalariak, aldiz, ezkondu gabe, emakume desberdinekin «soin-jokoa» ibili den Manu Araibar bere ezkontza-bizitzan zorionsu uzten du. Arras amaiera desberdinak batarentzat eta bestearentzat.

Gauzak horrela, ondorioztatuz beharko litzateke gizonezkoek bakarrik dutela 6. eta 9. aginduak urratzeko eskubidea. Gizonezkoaren eta emakumezkoaren izaera desberdina ote ikuspuntu horretatik? Gizonezkoaren lizunke-riarako joera gizonaren izaerari itsatsia dago eta, horrenbestez, barkagarri da? Ohoreak eta famak ez dute ukiturik jasaten gizonezkoarengan eta bete-betean harrapatzen dute emakumea?

Itxura denez, gizakumeak ez dauka ohoreaz eta famaz arduratu beharrik. Ez da inondik inora ikuspegi berria, oso zaharra baino. Oso zaharra, XX. mendearen bigarren erdiari hasiera eman ostean ere, eleberrigintzan behintzat, oraindik indarrean dirauen arren. Hala da, baina, gaizki-ulerturik sor ez dezan, aurrera baino lehen, azalpen txiki bat: bazter bedi aspaldiko ikus-kerak bati eutsiz dagoen Erkiaga isolatu baten irudia, erantzukizuna indibi-

duala gabe, kolektiboa delako. Gizartean atzematen zuen ikuskera islatu baino ez zuen egin Erkiagak. Giza talde oso zabalaren -zabalenaren ere erantsi ahal izango litzateke-, ikuskera adieraztera, garaiarekin bat egitera, mugatu zen.

Esan bezala, bere garaiko talde soziologiko zabalenaren ikuspegia islatu zuen, nahiz eta mendetako antzinatasuna izan. Euskal literaturaren tradizioari begiratu bat ematea aski da ikusteko 6. eta 9. aginduen urraketaren gaiak izan duela tarterik. Tradizio horretan agerikoa da gizakumeek eta emakumeek jarrera desberdina erakutsi dutela aginduok urratzeko orduan. Probetxua ateratzea jomuga duen gizonezkoaren aurrean, ohoreaz eta famaz arduraturik azaltzen den emakumea aurkeztu du euskal literaturak.

Lau mende luze denboran atzera egin eta, Bernard Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaen* (1545) maitasun mundutarraz diharduten koplatera jo baino ez dago. Etxeparek taxutzen duen emakumea ohoreak eta famak arduratzen duen bitartean, besterik du arreta-gune gizakumeak. Gizonezkoa den maitaleak eginiko eskariei (dela pota, dela berak nahi duena egitea...) emakumeak ezetza emateko dituen arrazoietan, bata erlijioso da -Jainkoaren gogoko ez izatea-; bestea, berriz, soziala: jakingo balitz, berak eta bere etxeokoe fama eta ohorea galduko lituzketela. Bestelakoa da haragizko maitasuna eskatzen jardun duen gizonezkoak, jokabide hori bertan behera uztea erabakitzen duenean azalduetako arrazoietakoa bat. Emakumeak bezala, bi motibo ematen ditu maitasun mundutarretik aldentzeko. Biak bat datoz batean, ez horregatik, bestean. Bat datoz arrazoi erlijiosoan -arima galtzeko arriskua dakusa gizonezkoak-; elkarrengandik urrutiratzen dira bestean: ohorea eta fama galtzeko arriskuak badarama emakumea gizonezkoak haragizko maitasunaz gozatzeko egindako gonbitak errefusatuz, saio horietan probetxurik atera ez izana -«heki ezin medra naite»⁶- argudiatzen du gonbitatzaileak. Azkenean, arrazoi zerutarrak -Jainkoaren legea gordetzeak- parekatzen dituen gizon-emakumeak, arrazoi lurtarrak desberdintzen ditu. Honenbestez, ezkontzaz kanpoko sexu-harremani uko egiteko zergatietako bat partekatzen duten gizon-emakumeak, bigarren arrazoi batek bereizten

⁶ Ik. «Amore gogorraren despita» koplako 55. bertso-lerroa. Etxepare, B., 1995, *Linguae Vasconum Primitiae*, 1545-1995. Bilbo : Euskaltzaindia, 112.

ditu: fama eta ohorea galtzeko beldurra duen emakumearen aurrean, probetxurik ez ateratzea du argudio gizakumeak.

Lau mende luze igaroak izanagatik, XX. mendearen 50. urteen amaieran oraindik bizirik dirauen ikuskera da ez duela eragin bera faman eta ohorean gizakumearen eta emakumearen bizimodu lizunak. 6. eta 9. aginduen urraketak ez dakar ondorio berdinek Manu Araibar eta Loli Menarentzat: Loli Menak bere izen ona galtuta ikusten du. Izen onak inoiz ez du kezkatuko Manu Araibar. Bizimodu lizuna eraman izanak ere ez dio ekarriko inolako galerarik. Maitemindu izana du bizimodu-aldaketaren eragile bakarra. Honen aurrean, haurdun dagoen Loli Menak ezkontzan dakusa galerei aurre egiteko modua. Ezezkoa jasotzean, bere buruaz beste egitea erabakitzen du arazoa konpontzeko.

Bidenabar esanda, ez da literaturan, 6. eta 9. aginduak urratu ostean bere buruaz beste egiten duen lehen emakumea. Horren erakuskaririk utzi du literaturak XIX. mendean bertan ere. Errealismoak emandako fruiturik bikainenetakoak -bikainenak ez badira- lekuko: Gustave Flaubert-en *Madame Bovary* (1857) eta Leon Tolstoiren *Ana Karenina* (1877). Emakumeak eraikitzen dituzte pertsonaia nagusi bi eleberrietan kontatutako istorioek. Beste ezaugarrikerik ere partekatzen dute: bi emakumeok ezin dute etsi emazte eredugarri izanaz. Zigorra jasango dute eragindako arau-urraketarengatik: bizi izaten jarraitzeko gogorik eta adorerik gabe, artsenikoa hartuko du Emma Bovaryk; trenbidera botako du bere burua Ana Kareninak.

XIX. mendean ez ezik, XX. mendearen lehen erdia igaro ondoren ere, gizarteak ezarritako portaeratik urruntzen diren emakumeek zigorrak jasotzen jarraitzen dute, portaera berbera erakusten duten gizonezkoek ez bezala: Araibar zalduna pertsonaia nagusia eta horrekin birjintasuna galdu zuen Loli Mena adibide.

Generotik eratorritako markak nabariak dira *Araibar zaldunan*. Ez da bakarrik ohoreak eta famak kezkatzen duen emakumea mamitzen duela, halako kezkarik ez duen gizakumea ez bezala: bada besterik ere. Loli Mena «ematea» bereizgarriaz ezaugarritzen den bitartean, «jaso» ezaugarria atxikitzen zaio Araibar zaldunari. Gisa horretako ezaugarri-banaketak ere sustrai sakonak ditu. Bere garaiko ikuskera islatzen jarraitzen

du Erkiagak, baina mende luzeetan indarrean egondakoa zen. Euskal tradizio idatzian bertan ere bazuen lekukotasunik. Euskaraz argitaratutako lehen liburuan bertan.

Beste behin Etxeparek moldatutako *Linguae Vasconum Primitia*eko kople-tara hurreratu eta, «Emazten fabore» izenburua daramana azertzen bada, erraz samar atzemango da gizonezkoaren zerbitzura aurkeztu zuela emakumea. Emakumeak gizakumeari emandako zerbitzu ugariak zerrendatzen zitu-
tuen. Horregatik, hain zuzen ere, azaltzen da emakumearen alde Etxepare: abantailak baino ez ditu emakumeak gizakumearentzat. «Eman» isotopiaren gain eraikitzen du emakumea (mundura ekarri, bularra eman, hazi, egunero lagundu, plazera eman...). «Eman» semak gobernatzan du emakumearen jarduera, aitzitik, kontrako norabidekoa den «jaso» semak, gizonezkoarena.

Dirudienez, lau mende luze geroago, «ematea»k emakumearen ezaugarri izaten jarraitzen du. Erkiagak irudikatutako Loli Menak Etxeparek bere zerrendara eraman ez zuen «opari» bat gehitzen du; izan ere, emai-leak berak aitortutakoaren arabera, Araibar zalduna berrerosteko eskaini zuen bere bizitza.

Loli Mena bekatuak aitortuta hil zen. Heriotzaren ostean, aitorle izan zuen apaiz gazteak Manu Araibarrengana jo zuen bakarka hitz egiteko asmoz. Hona apaizak Araibarri emandako berria:

Baiñan, gauza bat esan bear dizut azkentzat, eta Loli zanak esan zidan ederrena, agian: bere bizitza, gazterik alegia, 21 urte mami bai-zik ezpait zituan, zure bizitza obetutzearren eskeintzen zuala, zure ibillera makurrak zuzendu zitezen uzten ziola zeruko Aita errukiorra-ri. (92-93)

Gonbit batekin amaitzen du apaizak elkarrizketa:

Loli zanak eman dizu lezio odoltsua. Zuk duzu orain eretia joko garbiz jarduteko. (93)

Loli Menaren sakrifizioa ez zen alferrikakoa izan, Araibar zalduna 6. eta 9. aginduak urratuz ibiltzetik senar leial izatera helduko baita. Zaldunaren aldaketa horrekin, Loli Menak bere buruaz beste egitean zeukan berrerospen-asmoa gauzaturik gelditzen da: berrerosi du.

Araibar konkistatzailearen konkisten zerrenda emakume multzo batek osatzen du. Multzo horretan badira izen propioaren jabe ere ez direnak izenen batekin izendatzen direnen artean. Guztiotan, kontalariak emakume bakarra hautatzen du Araibar zalduna berrerosteko: Loli Mena soil-soilik.

Kontalariak Loli Mena ez du ipintzen Manu Araibarren behar sexualak asetzen dituzten gainerako emakumeen parean. Loli Mena bereizi egiten du.

Bereizten hasten da izen-deituren jabe den bakarra izateagatik, besteak, izen propioaren jabe izatera iristen ez direnean edo, abizenik gabe, izen soillean gelditzen direnean. Izen soilaz izendatutakoentzat, izenik hedatuenak baztertu eta izen deigarriren bat erabiltzen du: Mimex, Ani, Nini. Azkenean, modu batean ala bestean, izen propioa ezkutatzuz ala izen propio deigarri batez hornituz eta abizena isilduz, emakumeon identitatea babesten du. Ez du berdin jokatzeko Loli Menarekin: ohikoa den izen batez izendatzeaz gain, abizena ematen dio.

Bereizi egiten du Araibarri andrezale ezaugarria atxiki ondoren, Loli Mena hautatzen duelako istorioaren orainaldian kokatzeko: aurreko ibilerengatik jada irabazia zeukan zaldunak ezaugarri hori. Nahiz eta lehenaldiko zeinahi konkistarekin hel ziezaiokeen kontalariak Araibar konkistatzailearen berri emateari, justu, landa-girotik hiriratu den batekin hastea erabakitzen du.

Bereizi egiten du zigorra jasotzen duen bakarra izateagatik. Ezarritako zigorra litekeen gogorrena da: heriotza. Heriotzarekin ordaintzen du hutsegitea eta, aldi berean, bere buruaren sakrifizioa Manu Araibar berrerosteko eskaintzen. Araibarrekin birjintasuna galdu zuenak, heriotzaren atarian aitortzen zenez, Araibarren ibilera makurrak zuzentzearen eskaini zuen bere bizia.

Loli Menak baditu bi ezaugarri Araibarrek «soin-joko»rako lagun dituen gainerako emakumeek ez dituztenak: jatorria landa giroan izatea eta birjintasuna Manu Araibarrekin galdu izana. Izen propio baten jabe izanaz kontaktara datozen gainerako emakumeek ez zuten birjintasuna galdu Araibarrekin: Mimex eta Ani emagalduek -«aragi-bizi saltzailleak» (39)- dira; Nini, bere aldetik, ezkondua. Hirurek hiria dute bizileku; emagalduek, Bilbo, ezkonduak, Donostia. Hiruren jatorria, Loli Menaren kasuan ez bezala, ezezaguna da, kontakizunak jasotzen ez duelako. Bistakoa denez, emakumeok ere urratu

dituzte 6. eta 9. aginduak, baina zigorra Loli Menarentzat bakarrik da. Beraz, 6. eta 9. aginduak urratzen dituzten guztiek ez dute ordaintzen hutsegitea *Araibar zalduna* eleberrian: ez gizakumea den pertsonaia nagusiak, ezta hiria bizileku duten emakume lizunek ere. Herri koxkor bateko baserritik hirira joan eta bertako arriskuak saihesteko behar besteko ahalmena erakutsi ez duena bihurtzen da biktima bakar. Hain zuzen ere, landa-girotik birjina atera zena hautatzen da sakrifizioarako, eskaintza horren bidez Manu Araibar hiritar lizuna salbatzeko: hiria bizileku duen bekataria onbideratu da, landa-girotik birjin hiriratu zen emakume batek eginiko berrerospenari esker.

Erkiagak, seguru asko, hiria behar zuen, kontatu nahi zuen istorioa kon-tatzeko. Hiriko geografia zen pertsonaia nagusiari ondoen egokitzen zitzai-ona. Pertsonaiaren estatusak, ogibide dituen negozioak (inmobiliaria,...), li-zunkeriarra emana izateak -konkistaz konkista ibiltzeaz gainera, emagaldu eta burdelei ere abegi ona egiten diena- hiriko paisaia eskatzen zuen. Paisaia ezezaguna landa-girotik bertaratzen den batentzat. Paisaia ezezagun horre-tan ez galtzeko ohar bat uzten du. Neska inozoari zuzendutako oharra da: mutil zaldunengandik gorde dadila aholkatzen dio.

2. Bide tradizionalak

Jadanik adierazi denez, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eleberriko Leturia da euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia hiritarra. Handik urtebetera jaiotako Manu Araibar ere hiritarra da. Pertsonaia na-gusi bila landa-girora jo duen euskal eleberrigintzan oraindik salbuespen izaten jarraitzen dute urtaldi horietan.

Besterik ere partekatzen dute bi pertsonaia nagusiok: giro hiritarrekoak izateaz gainera, nahiak dituzte. Nola bata, hala bestea, bere nahia asetzen ahalegintzen da. Alabaina, oinarritzkoa den ezaugarri batek bereizten ditu elkarrengandik. Manu Araibar ez bezala, heroi gatazkatsua da Leturia. Le-turiak nahi zehatza du, zoriona eskuratzea, eta nahi hori asetzea bilatzen du. Bila eta bila dabil, aurkitu uste bakoitzaren ondotik porrot eginez, azken ahalegina eta gero, hil dela dioen berria idatzi duen egunkariaren transkri-batzaileak jaso arte. Nahia asetzea ezinbesteko xede bihurtuta, oinazetan

egindako bilaketa da berea; porrot bakoitzak hondoa jota uzten du. Ez porrota, ez gatazka, ditu lagun Manu Araibarrek. Manu Araibarrek badu nahi bat: unean-unean erabakitako konkista lortzea. Inolako eragozpenik gabe eskuratzen du: neskatan erraz egiten duen zalduna da. Gatazkarik gabe asetzen du nahia, bilatzen jardun gabe. Neskak bereganatzeko dituen estrategiek ez diote behin ere huts egiten: porrot bakar bat ere ez; arrakasta baino ez du ezagutzen. Azken finean, arazo bat duen eta arazoa arazo bihurtzen duen Leturiaren aurrean, Manu Araibarrek ez du arazorik, «neskatan egiteko» estrategiek primeran funtzionatzen diotelako.

Euskal eleberrigintzako lehen pertsonaia nagusi hiritarra eta lehen pertsonaia nagusi gatazkatsua ez ezik, lehen pertsonaia bilakaeraduna ere bazen Leturia. Berebiziko aldaketa izatera helduko den arren, ez dago bilakaerarik Manu Araibarrengan. Izan ere, aldaketa ez da bilakaera baten fruitu, kontakizunean kontatutako prozesu baten emaitza: eskarmentu edo gogoe-taren ondorio legez bideratetik urrutiratuz, gertakari jakin baten eraginean mamitua bezala aurkezten da aldaketa.

Prozesu baten berri emateko keinua egitera baino ez da iristen. Egin, egiten du keinua, baina horretan gelditzen da. Daraman bizimoduak Araibarri sorrarazten dizkion sentipen berriei tartea irekitzen die kontalariak. Lehenik, bakardadeak harrapatu duela iragartzen du:

Ainbat ezagutu ostean, ugariegi izan ondorean, soil izatea, baka-
rrik bizitzea ez zitzaion, egunetik egunera, ordurarte bezin bizigarri.
Adiña, edota aragiaren nekea... Beste zerbaiten susmoa edo gurari-zi-
mikoa sortzen zitzaion biozpean. (99-100)

Hurrengo, «garagarrilleko egun» beroetan kokatuz, honakoa eransten du:

Araibar-ek, ezarian-ezarian aldakuntza gogo-izpia somatu arren, ez
zuan aski kemenik, egin gogo zuana, bertatik zirt-zart egiteko. (111)

Hitz batean, bizimodu lizuna auzitan jartzen ari ote den adierazten hasten da kontalaria. Aurrerago, ordea, bizimodu horrek buruhauste handirik ez diola eragiten ere gaineratzen du. Atxagan igarotzen duen uda-sasoian, Araibarrek Loli Menaren azken aitole izan zen apaizarekin topo egin ostean, elkarrizketa luze bati helduko diote. Araibarrek apaizari esandakoa

zuzentzera iritsiko da kontalaria asmo jakin batekin: argi eta garbi utzi zertan den une horretan bizimodu lizuna bertan behera lagatzearen gaia:

Bizitza aldatu ote zuan, galdetu zion apaizak berealakoan. Eta besteak, orrenbeste ez, baiñan aldatu gogo ba zuala erantzun zion. Ez zan egia osoa ori. Ez zuan aren barruan kezka zorrotzak egonezin aundirik sortu. (123)

Horra, Araibarren barne-egoeraz egindako azterketa guztia: prozesu baten berri emateko keinua baino ez. Hortik, aldaketa iragartzera igarotzen da kontalaria. Aldaketa uda-sasoiaaren amaiera aldera kokatu beharko litzateke, droga-kontrabandoan ari zela izandako istripuaren ondorioz klinikan delarik, bisitatzera doakion Agurneri egindako aitorpenetan:

Zureganako maite-lera xamurra sentitzen asi nintzala aitortu nizunean, ez nizun gezurrik esan. Ondorengo asteetan, lendabiziko nire aizekai edo begitandua noski zitekeana, mardultzen, gizentzen eta kozkontzen (sic) ikusi dut, nire erraietako poz aundiaz. (...). Bai, Agur; emakume asko ezagutu izan ditut, agian geiegi zorigaitzez. Zertarako oroitu!... Baiña, auxe bai aldakuntza: zuri, oraindaiño, musutxo bat ere ez dizut eskatu. Nai nuke nire bizitza arteztu, eta *osoro* beranduegi dani, ez dut uste. Nire okerrak, alegiñean, zuzendu nai nituke, guztiak egitea eziña izango dan arren... Orra ba, nire asmoak. (156-157)

Badirudi, azkenean, maitasuna dela Araibarren aldaketaren eragilea. Barne-prozesu baten emaitza gabe, maitemintzearen ekintzaren produktu dela. Bizi izandako esperientziaren fruitu baino gehiago, bizitzako une jakin batean gertatutakoaren ondorio litzateke: ez da pertsonaia bilakatuz joan dela, baizik eta sentimendu berri bat erne zaiola. Sentimendu berri horrek dakar bat-bateko aldaketa.

Itxura guztien arabera, Erkiagarentzat, maitasuna da pertsona berreros-teko ahalmena duen sentimendua. Loli Menak Araibarren bizitza hobetzearen eskaintzen zuela bere bizitza adierazi zion aitorleari hil aurretxoan. Orain, Loli Menaren eskaintzak eman du fruitua: onbideratu da Manu Araibar. Aldaketaren jatorria maitasunean dago: Agurneri esker benetako maitasunera jaiotzean itxuraldatu da Araibar. Horren esanetatik ondorioztatu behar denez, sentimendu berriak ez du ukipen fisikoa euskarri. Hala-

tan, ukipen fisikoa bilatzen zuen harremanetik, beste euskarri bat duen harremanera igaro da. Jakina, ukipen fisikoaren gai horretan, uste izatekoa da badela mugarri erabakigarriaren ezarle den baldintza bat: ezkontzako sakramentuak bedeinkatutako harremana izan ala ezkontza aurrekoa.

Honela bada, aldaketak maitasuna du eragile: birjintasuna berarekin galdu zuen Loli Menak maitasunez egindako eskaintzak jadetsitakoa, Agurnek ernarazi dion maitasunaren forman hartzen du Araibarrek.

Araibar zalduna ez da ez pertsonaia gatazkatsua, ezta bilakaera duena ere. Euskal eleberrigintza ehotzen joan den tradizioan txertatuz, pertsonaiak bila-kaerarik gabea izaten jarraitzen du. Araibar zalduna aldatuko da: lizunkeriara emana bizi izatetik, senar eredugarri izatera egingo du jauzi. Zinez, jauzi baten berri ematen du kontakizunak, eta ez eginaz joan den bide baten berri. Araibar ez da aurkezten «birjaioz» doan pertsonaia moduan: bat-batean «birjaiotzen» da Agurnez maitemintzean. Euskal eleberrigilearentzat, daukan nortasunari eusten dion izakia da gizakia, nahiz eta alda dezakeen. Aldatu, ordea, era bakar batean baino ez du aldatzen: bat-batean, gertaera zehatzaren kausaz. Ikuspegi hori adierazi zuen XIX. mendearen amaieran jaiotako euskal eleberrigintzak. Ikuskera bera dario Erkiagari: gizakia ez dakusa eginaz doan izaki legez.

Ordu arteko euskal eleberrigintzak erakutsitako ikuskerarekin hausten duena *Leturiaren egunkari ezkutua* da. *Araibar zaldunak*, ostera, jarraipena emango dio osagai berri batzuk gehituz.

Ez dago inolako berrikuntzarik baliatzen dituen prozedura narratiboetan. Kontalari orojakilearen bitartekotasunera jotzen du istorioa kontatzeko. Bitartekari honek behin eta berriz eteten du kontakizuna, gogoetak, ohituren deskripzioak eta abar txertatzeko; zehazten ez den denbora batean kokatzen ditu kontatutako gertaerak; pertsonaia lauak moldatzen ditu....

Txomin Agirreren eleberrietako kontalariak bezala, *Araibar zaldunakoak*, istorioa kontatzearekin batera komentatu egiten du. Komentatzea, gainera, ez da mugatzen kontatzen ari den gertaera zehatzera; izan ere, horrek iradokita edo, gogoeta orokorrak eransten ditu. Txomin Agirreren eleberrietan bezala, bada gorabeheraren bat modu orokorrean jorratzeko joera eta, jarraian, kontatzen ari den istorioko pertsonaiak testuinguru horretan kokatzekoa:

Inauteriak egundoko zalaparta ta iskanbilla ta batez ere eziñegona ekarri diete gazteai iri aundira. Ezin uka, ematen duan bizitasun eta kilikilia.

Neguaeren gorputz sendo, gordin eta trinkoari bere tristezia antza kenduaz, alako dardarakizuna ematen bait dio giza-soiñari, aragiari. Eta aragia ere, gizonarena baita (...). (33)

Inauteriek ez ezik, beste gai batzuk ere bultzatuko dute kontalariaren hitz-jarioa: andrezkoen soinekoek (59-60), euskaldunak (155), XX. mendak (158), haurrik ez duen emazte gazteak (162) eta abarrek. Maila filosofikoa uzten duenean, istoriora itzuliko da, gertaera-leku konkretura, pertsonaia jakinera.

Agirrek eta Erkiagak bestelako edukiz osatutako berbaldiz ere hornitzen dute kontatzen ari diren istorioa: ohituren deskripzioa, kasu. *Araibar zaldunak* Atxaga herrian ospatzen den antzarraren festaren deskripzioa, esate baterako.

Istorioaren kontakizunaren haria modu anitzetan hausten du: maila filosofikoko gogoetak eta ohituren deskripzioak barneratzeko ez ezik, gertaeraren batek iradokitako jazoeraren bat jasotzeko⁷, kantzak eta errefracuak sartzeko⁸... Osagai guztiok leku narratiboa betetzen dute; hau da, berbaldi bihurtzen diren aldetik tokia hartzen dute, beste egiteko bat izan zezakeen berbaldiaren galeratan. Esaterako, kontalariak eman zezakeen pertsonaia nagusiaren ibileren berri zehaztasun gehiagorekin, lanak eragindako jardunari tarte handiagoa eskainiz edo bere maite-jokoen gorabeherak xehetasunez betez. Hitz batean, osagai filosofiko, ohiturazko eta abarrek eratzen dituzten digresioak alde batera utzi balitu, jazoerak astiroago, xeheago kontatzeko aukera zukeen.

Gertaerak oso modu zehaztugabeen kokatzen dira denboraren ardatzean. Zenbait ospakizunetara (Inauteriak, Gabonak), urte-sasoiatarara (uda) edo «goiz batean» (71) edo «beste goiz batean» bezalako marketara jotzen du kontalariak. Ez zehazteagatik, istorioaren iraupena bera ere ez du zehazten. Ez

⁷ Tomas eta Martin anaiak Ameriketatik Atxaga jaioterrira etortzeak Algortako indiano baten pasadizoa gogaratzen dio eta testura dakar, 129.

⁸ Kanten zatiak maiz jasotzen ditu. Ik. 58-59, 65, 73, 82, 90, 134, 152, 160 eta abar.

dago jakiterik zenbat denbora igarotzen den kontatutako lehen gertaeraren eta azkenaren artean, bi gertaerok elkarrekin harremanetan egon arren. Martin Usategiren heriotzarekin hasten da istorioa eta horren azken borondateen berri emateko asmoz notarioak antolatutako batzarrarekin amaitzen: biak ere datarik gabeak. Mugatzerik ez dagoen tarte horretan Manu Araibar konkistaz konkista ibiltzetik senar eredugarri izatera igaroko da, baita haurrik ezin eduki dezaketelako, haur bat jasotzera ere. Honek guztiak denbora luze samarra eskatzen du, baina, luze ala labur izan, ez dago neurtzerik: Araibarren bizitzako bi aldi aurkezten dira, aldi horien eta aldi horietako bakoitzean garatzen diren gertaeren iraupenaren gainean zehaztasunik eman gabe.

Pertsonaiak lauak dira. Gizabanako konplexurik eraiki gabe, pertsonaia sinplez hornitzen jarraitzen du euskal eleberrigintzak. Manu Araibar gizaki-tipo bat ordezkatzera dator: gizonezko andrezalea, gonazalea. Alderdi horretatik bakarrik ezaugarritzen da pertsonaia.

Horiek horrela, bistakoa da XIX-XX. mendeen arteko mugan abian jarritako eleberrigintzak erabilitako prozedurak bereganatzen dituela Erkiagak. Prozedura narratiboak hautatzea, egia esan, ez da ekintza inozoa. Mundu-ikuskerara bakar baten adierazle izan da hirurogei urtez landu den euskal eleberrigintza, *Leturiaren egunkari ezkutua* iritsi arte. Horren aurretiko eleberrigintzak adierazitako mundu-ikuskerari eusten dio Erkiagaren *Araibar zaldunak*.

Halere, hautsak harrotu zituen bere garaian. Honela zioen L. Mitxelena argitaratu zenean egindako aipamenean:

Esamesak ibilli dira (...) novela onen inguruan. Batzuek gordinkeriaren bat edo beste arkitzen omen zioten, eta eztaikit azkenik pixkaren bat orraztu ez dizkioten. Beste batzuek, berriz, (...) alako predikua-areta maizegi igertzen... Batzuen eta besteen artean aukeratu bear banu, ni aukeran, norbaitek sumatuko zuen bezala, azkenekoen alde agertuko nintzateke.⁹

Gordinkeriaren bat edo beste aurkitzen diotenak hirurogei urte horietan barrena garatutako eleberrigintzak erakutsitako mundu-ikuskerarekin bat

⁹ Mitxelena, L., 1962, «Eusebio Erkiaga. *Araibar zalduna*, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en», *Egan* 1/3, 87.

egiten dutenak dira. Prediku-aria sumatzen diotenak, berriz, beste eleberrigintza-modu bat (edo batzuk) gogokoago luketenak.

Hirurogei urtez eraikitzen joan den tradizioan txertatzen da Erkiagaren eleberria, zalantzarik gabe. Eleberrigintza horrek erabilitako teknikak darabiltza, eleberrigintza horrek bezala giza jokabideak arautu nahi ditu, eleberrigintza horrek adierazitako mundu-ikuskerara adierazten du...

Hala eta guztiz, bada gordinkeriari sumatzen dioenik. Pertsonaia nagusiak 6. eta 9. aginduak urratuz gauzatutako ekintzak esplizituegiak-edo izango ziren eta talka egingo zuten ordu arte euskal literaturak erakutsitako lotsa onarekin, nahiz eta berez kontalariak xehetasun handiegiz ez jantzi Araibarren maite-jokoak. Xehetasun handiegitara jo ez arren, maite-joko horiek ñabardura askorekin azaldu ez arren, ez ditu zeharo ezkututzen. Herabetasunik handiena gorde izanagatik, maite-joko oro erabat isildu duen eleberrigintza batean, bera izan da esplizituena. Horrenbestez, ondorioztatu beharko da badela nobedaderen bat Erkiagaren eleberrian, aurreko eleberrigintzaren mundu-ikuskerara adierazteari atxiki izanagatik. Nobedade horren neurria areagotu egiten da garaiko giroaren argitan atzematen bada; izan ere, ezin izan zitekeen lantegi erraza berrikuntzarik apalenari atea irekitzea zentsuratzailerak estuak gain-gainean edukita.

Jakina da XX. mendearen 50.eko hamarkadan haustura ideologiko batek zeharkatu zuela euskal gizartea. Hausturaren alde batera eta bestera kokatzen direnek ikuskera oso desberdinak dituzte: ukipen-punturen baldin bade, ez da oso agerikoa. Ondorioz, euskal idazlearen idazlanak ezinezko du batzuk eta besteak asetzea. Mitxelenarengandik jasotako aipua lekuko: batzuk Erkiagaren eleberriari gordinkeriaren bat aurkitzen dioten bitartean, beste batzuk «prediku aria» hartzen diote. Hautemate arras desberdinok eten ideologikoaren adierazle dira.

Gordinkeriaren bat atzematen diotenentzat, zalantzarik gabe, euskal literaturak lotsa onekoa, begiratu, izaten jarraitu behar du. Testuinguru horretan ezin izan zitekeen langintza erraza bizimodu lizuna zeraman pertsonaia bat moldatzea: xehetasunik txikienetik gordinkeriaren salaketa etor zitekeen. Dirudenez, etorri ere, etorri zen eta, agian, jatorrizko testuaren orrazketaren bat ere lortu zuten salatzaileek.

Bada zantzurik uste izateko *Araibar zalduna* eleberriak Domingo Agirre saria irabazi zuenean, 1958an, sexu eta, oro har, afektibitate-harremanen alorra ezkutuan gordetzea nahi zutenen eraginkortasun-maila ez zela badaezpadakoa. *Araibar zaldunak* pairatutako gorabeherak lekuko. Besterik ere, erantsi ahal izango litzateke: urtaldi horietan beste eleberriren batek argitaratzeko izandako eragozpenak, hain justu. Dirudienez, Jon Miranderen *Haur besoetakoaren* (1970) argitalpena hamarkada batez atzeratu zen.

Literaturan, erabilitako gaia baino gaia erabiltzeko modua erabakigarriago dela onartuz, gaiak berak ere izan dezake garrantzirik: pedofilia-harreman baten kasuan kolpe handiagoa jasango du decorum-ak andreza baten harremanen kasuan baino. Azken batez, gizakume andreza learen irudiak tradizio luzea du, baita nolabaiteko «onarpen» soziala ere.

Araibar zalduna eta *Haur besoetako* garai bertsean idatzitakoak dira Mirandek emandako berriei jaramon egiten bazaie behintzat: 1959ko otsaile-rako idatzita omen zeukan.¹⁰ Baina, 1970. urtera arte ez zen argitaratu. Horrenbeste denbora argitaragabe egotearen arrazoa ezin egotzi dakiok e egilearen borondateari, honek 1959ko otsailean bertan idatzita edukitzeaz gainera, argitaratzeko gestioak ere eginak zituela aitortzen baitu, nahiz eta helburua lortzeko itxaropen handiegirik ez izan.¹¹ Agerikoa denez, hamaika urte itxaron behar izan zuen. Gakoa, nola ez, testuan zegoen: gaian eta gaia erabiltzeko moduan.

Beraz, 50. urteen amaieran mamitutako bi eleberriek nolabaiteko gaitzespena jaso zuten. Miranderenak Erkiagarenak baino askoz nabarmenagoa, noski. Hasteko, oraindik ezkutuago gorde beharreko gaia zerabilelako. Lotsa onekoa zen literaturarako pedofilia-harremanez jarduteak, andreza

¹⁰ Hala dio 1959ko otsailaren Iean Txomin Peilleni bidalitako gutunean: «Aipatu nizun ipuina bukatuxerik dut -garbitan ipintzen ari naiz orain-, eta amar bat egunen bururako egiñik duket». Urkizu, P. (ed.), 1995, *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*. Zarautz : Susa, 152.

¹¹ Arestian aipatu gutunean, darabilen gaia zehaztu ondoren, «euskerazko *Lolita* bat» eranstu du: «Mitxelenari bi itz esan diot hortaz eta erantzun dit aldizkarian publikatzeko alegiñak egingo dituela. Bainan beldur naiz ezin ditekeala, zati zenbait aski erotiko baitira -naiz funtsez oso garbi eta sentimental den. Bearbada, liburu txiki antzean aterako dut, zentsurari iges egiten aal ba dio», 152.

baten ibilerez jarduteak baino arau-urraketa askoz sakonagoa zekarren. Are sakonagoa andrezaile horren ibilerok xehetasunetan sartu gabe kontatzen zirenean, pedofilia-harremanez ziharduenak «zati zenbait aski erotiko»¹² barneratzen zituen bitartean. Dena den, aldeak alde, *Araibar zaldunak* eragindako esamesek, *Haur besoetakoak* urteak argitaragabe igarotzeak... garai-ko giroa islatzen dute. Bai behintzat, bazela gizatalde bat euskal literatura-aren ibilbidea decorum-aren lege estuenean barnean gorde nahi zuena.

Gauzak horrela, badirudi Erkiagak *Araibar zalduna* eleberrirako hautatutako gaia hautatzeko ausardia pittin bat behar zela: ez zela, ez errazena, ezta erosoena ere. Horregatik, hain justu, eleberraren idazketaren garaiari so, pertsonaia lizunari bitzita emateak badu nobedade-puntu bat: testuingurutik ernetzen den nobedade-puntua da.

Erkiaga da, XIX. mendearen bukaeratik ehotzen joan den tradizioan sustraituz, pertsonaia nagusia hirian kokatzen duen lehen eleberrigilea. Tradizio horretan, Etxaide izan zen lehena eredugarria ez zen pertsonaia nagusiarri bitzita ematen; Erkiaga, berriz, eredugarria ez zen pertsonaia nagusia hirian kokatzen. Giro-aldaketa horren eskakizunengatik edo, pertsonaia nagusiaren ogibidea berria da. Ogibideak udatiar bihurtzeko aukera ere ematen dio. Uda igarotzeko lekura luzatzen da giro hiritarra, hizkuntza desberdinetako udatiarren elkargune izateak berak erakusten duenez.

Landa-girotik hiritarrerako jauzia baliatutako mintzairan ere islatzen da. Hizkuntzaren erabilerara bertara hedatzen da giro hiritarra: bada hizkuntza arrotzen arrastorik: «One, two, three, four, and five» (102) edo gaztelaniaz dagoen kantarik (134). Badira, halaber, euskal eleberrigintzan ordu arte erabili gabeko hitzak: *popo* (12), *igande baterako plana* (26), *tebeo* (33), *ponpis*, *bikini*, *slip*, *short* (102), *exotiko* (105), *exitu* (109), *vedette* (120), *kupo* (126), *tonua* (132), *atmosferarik* (135)...

Mailegu berri-berriekin batera, bada neologismorik ere: *beribilla*, *urrutizkiña*, *akeita*, *zapata-adarrak*, *orlegia*, *urrutizkin-belarria*... Dena den, erreferente bera izendatzeko nola mailegua hala neologismoa erabiltzen dira: adibi-

¹² Egileak berak aitortua. Ik. aipatutako gutuna, 1959ko otsailaren 1eko datarekin Txomin Peilenni igorritakoa.

dez, «bikini»rekin batera «biko» (106). Neologismoak ez bezala, mailegu berri-berri horiek zeinu grafikoren batekin markatzen dira, dela letra etzarenaren bidez, dela kakotxen bidez.

Euskara hizkuntza arautua eta normalizatua ez izateak eragin nabaria izan du euskal eleberrigintzan. Helburu didaktikodun eleberrri tradizionalari dagokionez, maiz, hizkuntza bera ere ikasgai bihurtu zuen: kontalariak eta pertsonaia nagusiak, salbuespenik gabe, hizkuntzaren erabilera eredugarria egiten zuten. Euskara garbiaz eta aldi berean ulergarriaz baliatzea, pertsonaia eredugarriaren portaera eta horren hizkera decorum-ak agindutako legeei lotzea eta abar, eleberrigintza tradizionalaren kezka izan dira. 1936ko gerraren ostean ere ez ziren desagertu idazketara eraman beharreko hizkuntzak sortutako buruhausteak. Esaterako, honela zioen Etxaidek *Alos-torrea* elezaharrari eginiko sarreran:

Irakaskintza irixten eztegun bitarteko nere irizpidea auxe da: Garbi idatzi, bai esakeraz, bai itzez, bai aditz-jokoz, bai joskerari dagokionez, geiegikeriraiño jo gabe ordea, ta euskalduna ulertzeko lain eztan esakera, itza, edo aditz-jokoa, (...) erderara ala euskera errezagora itzuli.¹³

Eleberria menpekotasun horietatik askatzera jotzen du Erkiagak. Horren lekuko lexiko mailan mailegu berri-berriak ez baztertzea edo behe-mailako adierazpenei ere leku egitea.

Laburbilduz, Erkiagaren *Araibar zalduna* eleberriak bere ekarria egiten du ordu arte landutako eleberrigintzak eratutako tradizioa. Tradizioan txertatuz, koordinatu narratiboen erabilera tipifikatuaren bidez giza portaerak arautzen jarraitzen duen arren, zurruntasun gutxiagorekin arautzen du. Jada ez du eraikitzen euskaldunak izan beharko lukeenaren eredu litzatekeen pertsonaia nagusia, horrek lizunkeria irudikatzen baitu. Hori gutxi ez dela, egiten dituen negozio guztiak ere ez dira garbiak... Eredugarri ez zena eredugarri zena nabarmentzeko bitarteko moduan bakarrik erabili duen eleberrigintzaren aurrean, autonomia ematen dio zuzena ez den jokabidea adierazteari: Araibar zaldunaren ondoan ez da taxutzen zaldun eredugarria

¹³ Etxaide'tar, Y., 1950, *Alos-torrea*. Zarautz : Itxaropena Argitaldaria, 9-10.

irudikatuko lukeen pertsonaia. Jada istorioa ere ez du kontatzen «erabili beharko litzatekeen» euskara darabilen kontalari batek: giro hiritarreko pertsonaia baten berri emateko motz gelditzen zen euskal hiztegiari aurre egiten dio neologismoaren ondoan mailegu gordinaz baliatuz... Azken batez, Erkiagak eleberrigintza tradizionalen sustraituz, jadanik esana zegoena berdin-berdin berresatea saihesten du, baliatutako osagaien batzuk leunduz edo berrituz.

Aipatutako bibliografia

- AGIRRE, D., 1981, *Garoa*. Oñati : Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria.
- AGIRRE'TAR, T., Barrenso, 1937, *Uztaro: eleberria*. Bilbao : Editorial Vasca.
- ERKIAGA, E., 1962, *Araibar zalduna*. Zarautz : Itxaropena Argitaldaria.
- ETXAIDE'TAR, Y., 1950, *Alos-Torrea*. Zarautz : Itxaropena Argitaldaria.
- , 1955, *Joanak-Joan*. Zarautz : Itxaropena Argitaldaria.
- ETXEPARE, B., 1995, *Linguae Vasconum Primitiae, 1545-1995*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- IRATCHET, J. P., 1990, *Antton*. Donostia : Etor. Patri Urkizuk prestatutako edizioa.
- IRAZUSTA, J. A., 1946, *Joñixio*. Buenos Aires : Editorial vasca Ekin.
- MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid : Minotauro.
- , 1962, «Eusebio Erkiaga. Araibar zalduna, Itxaropena Argitaldaria, Zarautz'en», *Egan* 1/3, 87.
- MIRANDE, J., 1970, *Haur besoetakoa*. Donostia : Lur.
- TXILLARDEGI, 1957, *Leturia-ren egunkari ezkutua*. Bilbao : Euskal Idaz-lanak.
- URKIZU, P. (ed.), 1995, *Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*. Zarautz : Susa.

Eusebio Erkiaga Olerkari

Eusebio Erkiaga, poeta

Eusebio Erkiaga, poète

Eusebio Erkiaga, poet

ETXEBARRIA, Igone
Labayru Ikastegia. Euskaltzain urgazlea

Noiz jaso:2013-03-28

Noiz onartua: 2013-07-09

Euskera. 2012, 57, 3. 571-583. Bilbo
ISSN 0210-1564

Eusebio Erkiaga idazle ugaria izan da, XX. mende ia osoan genero guztiak landu zituen, baina olerkari sena izan da haren idatzietan gehien azpimarratu izan den ezaugarria. Hala ere, olerkiak soltean baino ez zituen argitaratu bere bizian, hil ostean agertu zen haren poesia-lanen bilduma, *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz* izenburupean. Artikuluaren egi-leak atondu zuen edizioa eta artikulu honetara ekarri ditu lan horretako ezaugarriak, idazlearen olerkari-ibilbidea, olerkien gaiak eta gainerako zehaztasunak.

Hitz-gakoak: neurtitz, olerki, idazle, herri literatura, musika.

Siendo Eusebio Erkiaga un escritor prolífico, cultivó muchos géneros literarios durante todo el siglo XX, pero es especialmente el sentido poético lo más característico de toda su obra. Aún así solo publicó poesías sueltas en vida, y posterior a su fallecimiento se publicaron sus poemas en una sola obra bajo el título *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz*. Es la autora de este artículo la que preparó la edición, y por consiguiente trae a este artículo las características de esa obra, la trayectoria poética de Erkiaga, los principales temas que abordó y otras consideraciones.

Palabras clave: verso, poesía, escritor, literatura popular, música.

Eusebio Erkiaga qui fut un écrivain prolifique cultiva de nombreux genres littéraires pendant tout le XX^e siècle, mais c'est surtout le sens poétique qui caractérise l'ensemble de son œuvre. De son vivant il ne publia que des poésies isolées, ce n'est qu'après sa mort que furent publiés des recueils de ses poèmes sous le titre *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz*. C'est l'auteur de cet article qui en a préparé l'édition, elle présente par conséquent dans cet article les caractéristiques de l'œuvre, la trajectoire poétique d'Erkiaga, les principaux thèmes qu'il aborda, ainsi que d'autres considérations.

Mots-clés : Vers, poésie, écrivain, littérature populaire, musique.

Eusebio Erkiaga was a prolific writer. He worked on all genres throughout almost the whole of the twentieth century, but the characteristic of his writing most emphasized is his sense of poetry. Even so, he published only occasional poems while alive; the collection of his poetic work under the title *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz* did not appear until after his death. The author of the article, who prepared the edition, reviews the features of Erkiaga's work, his poetic development, the topics of the poems and a number of other details.

Keywords: verse, poem, writer, popular literature, music.

Eusebio Erkiaga Deustuko Unibertsitatean

Eusebio Erkiaga zena jaio zela ehun urte bete dira, eta honezkero hil zela ere hainbat urte joan dira, ezagutu genuenok ere zahartzen goazen seinale.

Ni gaztetxoa nintzela, Deustuko Unibertsitateko ikasle hain zuzen, ezagutu nuen Eusebio. Labayru Ikastegian ibili nintzen eskolak ematen, eta gero Mikel Zarate Literatur Mintegian sartu nintzen, literaturarako zaletasuna neukala eta. Han enkargu bat eman zidaten, Eusebio Erkiagaren *Txurio txoria* izeneko nobelari sarrera idazteko. Nik ez idazlea ez nobela nor ez zer ziren ez nekien ezer. Uda amaitzeko zegoen eta Eusebio Lekeition zegoen oraindino; beraz, telefonoz izan genuen lehenengo harremana. Hortik aurrera, ostera, dena joan zen guztiz ondo, 'arima bikiak' ginela esaten zuen berak.

Niretzat ohore handia da jardunaldi hau Deustuko Unibertsitatean egitea, baina ez nigatik, Eusebiogatik beragatik baino. Esan dut ni hemengo ikaslea nintzela, Euskal Filologia eta euskaraz ikasten nuen. Gaurko begiekin ezin da imajinatu ere egin Eusebiorentzat hori zer zen, unibertsitatean euskaraz eta euskal gaiak ikastea. Gerra Zibila eta diktadura gogor-lehor-lakarra igaro eta gero, euskaltzalea izan eta euskaraz egiteko eta ikasteko hainbeste traba, ezintasun eta eragozpen igaro eta gero. Horregatik pozten naiz Eusebioren izena eta lana unibertsitatara ekarri izanagatik. Ez daukat dudarik merezi duena, baina pozgarri egiten zait berak hain gauza miresgarritzat zeukana bere izenean egitea.

Ehun urte zenbaki biribila da eta horrek eman digu Eusebio Erkiaga gogora ekartzeko aitzakia. Nik beste andre historiko bat ezagutu nuen, Some Unzueta *Utarsus*. Hark bizirik bete zituen ehun urteak eta, hori zela eta, hedabideei deitu eta itzelezko ospakizuna egin genuen, benetan merezi zuen eta. Zer da-ta baina! Hurrengoan 101 eta hurrengoan 102 bete zituen eta halako gorarik eman ez bere urtebetetzeari. Eta esaten zigun: «Hau da gero! 101 urte betetzea 100 baino gaitzago izan, eta meritu gutxiago dauka ostera!»

Guk ere datorren urtean ez dugu Erkiagaren oroimenez ezer egingo, baina aurten bai, eta hori aprobetxatu behar dugu, bai gogora ekartzeko, lehen esan dudan moduan, bai gizartera ekartzeko. Izan ere, nire ikasle garaian ez genuen halako idazleen lanik irakurri karreraren zehar, ez dakit gaur egun

ikasgaietan aipatzen den, baina gaurko ekitaldia izango da horretarako akuilua. Hemen entzundakoekin jabetu ahal izango gara zer testuingurutan idatzi zuen, zer baliabiderekin landu zituen hizkuntza eta literatura, eta hori gogoan dugula irakurri behar dira haren idatziak.

Eusebio Erkiaga olerkari

Eusebio Erkiaga poesiaren bidez sartu zen literaturaren arloan, eta asko ere asko idatzi zuen genero horretan. Olerkigile moduan hasi zan Erkiaga, *Yakintza*, *Euzkerea*, *Euzkadi* eta *Eguna* aldizkarietan batez ere, gerra aurreko kultur giro bizi-bizi hartan, orain hain modan dagoen Euskal Pizkundearen garaian. Ordukoa zuen Lauaxetarekin harremana eta haren eragina eten-gabea izango da Erkiagaren ibilbide literario osoan.

Idazten hasteko arrazoietakoa bat euskara erabiltzea da, gure hizkuntza zabaldu eta landu behar da. Gogoan hartu *Eguna*, euskarazko lehenengo egunkarian ere ibili zela kazetari.

Olerki asko eta asko idatzi zituen, baina ez zuen olerki-libururik argitaratu bera bizi zela. Geroago heldu zen hemen eskuartean daukagun *Goizean eta arratsean*. *Eskubete neurtitz* izeneko liburu bikoitza.

Konturatuko zineten *neurtitz* berba dagoela izenburuan. Hori berak aukeratua da. Poesia, olerkia, neurtitza... gauza bera izendatzeko modu ezberdinak dira, baina izenbururako berak hori jarri nahi izan zuen, Orixek ere hori darabilela eta haren iritziari jarraituta.

Zer da literatura Erkiagarentzat?

Ez da erraza halako itaunari erantzutea. Berak erantzun dotore eta zehatz-tza emango zuen, baina ez da erraza orain hori asmatzen hastea. Gazte-gaztetan hasi idazten eta mendearen joanean aldiak, aroak, gustuak eta pertsonak aldatzen joan arren, berak ez zion idazteari utzi azkeneko eguneraino. Horrez gainera, burua beti argi eta zabalik eduki zuen, ikasteko prest. Ibilbide luzea egin eta gero ere, besteek dakitena entzun, ezagutu eta haiengan-

dik ikasteko borondatea eduki zuen beti. Idazle unibertsalen lanak irakurri eta mira eginda egoten zen.

Literatura-joera guztiak irakurri eta ezagutzeko zalea zen Erkiaga, gustuak gorabehera. Prestakuntza aldetik autodidaktatzat definituko nuke, irakurri eta irakurrita bere bidea egiten joan zen, aldian aldiko joeretara gutxi gorabehera egokituta, baina beti bere bidetik aldendu barik. Hizkuntzaren olgetaria da Erkiaga, gai sakonak nahiz eguneroko gauza txikiak olerkigai bihurtzen ditu, zentzu guztien bitartez jaso eta adierazita. Lekeitio, itsasoa, uria, Bilbo... horra hor bere paisaiak. Herria, hizkuntza, kristautasuna, familia... horiek bere olerkien mezuaren oinarriak.

Poesia Erkiagarentzat berba egiteko modua da, bere espresio bidea. Lekeitioko jaiak direla, ba bertso batzuk egingo ditu; baten batek zoritxarren bat izan duela (gaixotasuna, istripua, heriotza...), ba poema bat dedikatu; baten batek zeozer ona daukala (ezkondu, umea eduki, sari bat hartu...), ba bertso bat agindu. Horrek beste barik ondorio bi dakartza argi eta garbi: alde batetik, olerkien gaitan eta lantzeko mailan gorabehera handiak egotea (batzuk landuagoak eta finagoak dira, beste batzuk, ostera, arinago egin-dakoak, traketsagoak). Eta beste aldetik, kopuru handia.

Agustin Zubikarai lagunak honetara azaltzen du Erkiagaren olerkigintza: «Erkiaga, bere bizitzan izan dana: olerkari gozo ta ezti, idazle txukun eta jator, euskal idazle etenbako eta bere sorterriaren maitale gartsu, baina herminak egiari kerizperik egin barik.» (Agustin Zubikarai: 1994)

Erkiagak berak liburu batean olerki guztiak batzeko asmoari heldu zionean, hau idatzi zuen edukiari buruz:

«Olerkari handien asmo eta burutapen zorrotzik ez dago hemen. Poesi goitarreko zelai-hurbilean ez naz ibili. Sentimentu agerpena, eguneko eta tokian tokiko persona, gauza eta jazoerak kantatu ditut. Umore tanta batzuetan, zirikadak hurrengoan. Beharbada, poema edo lan luzeagoetan kementa eta indarra areago azaltzen dau egileak arnasa luzeagoko lanak direanez, labea beroago jartzen dabelako edo».

Denboran, lehenengo testuak 1931koak dira, azkenekoak 1990ekoak. Ia-ia XX. mende osoa harrapatzen du, gorabeherekin baina etenik gabe.

Argitaratzeko lekuei erreparatuta, hogeita bost egunkari-aldizkaritan daude sakabanatuta, sasoi, aldi, joera askotakoetan. Datei begiratzuz gero bi parentesi edo hutsune daude bere produkzioan; hau da, aldi bitan olerki gutxiago idatzi zituen, gorabehera pertsonalei lotuta.

Berak esanda dakigu aldiok beharlekua aldatu zuenean eta seme-alabak txikiak ziren garaiarekin bat datozela. Horrek ez du esan gura orduan ez zuela idazten, baina poesian beheraldizat hartu daiteke.

Aldizkarietan, gehienetan ezizena darabil sinatzeko: *Endaitz* eta *Erkiagarrre* batez ere. Urteak joan ahala eta mendean aurrera egin ahala, bere izenez sinatzen ditu, prosazko lanetan moduan.

Erkiagaren poesia osoa liburuan batuta

Kritikak olerkari sena aitortu izan dio beti, baita prosazko lanetan ere, baina ez dugu eduki haren olerki-bildumarik zer, zelan eta zenbat idatzi zuen jakiteko bera hil ostera arte. 1992an Bizkaiko Foru Aldundiak omendu zuen bizi osoko ibilbidea saritzeko, eta jabetuta olerkiak sakabanatuta zituela han agindu zion bilduma egitea, gerora *Goizean eta arratsean*. *Eskubete neurtitz* izenarekin ale bitan argitaratu zena.

Liburuaren ekarpenik handienetakoa da Erkiaga poeta erreibindikatzea, poeta zela jakin arren haren produkzioa arlo horretan ezezaguna zelako. Bizkaiko literaturarako ekarpen handia da, Bizkaiko idazlea delako eta lanetako asko bizkaieraz daudelako. Eta euskal literaturaren historian ere bali handikoa da, XX. mende ia osoa harrapatzen du eta.

Aurretik ere bagenekien Erkiaga poeta genuela, baina emaitza oraindino ere ugariagoa izan zen behin dena batuta. Ale bitan 1034 orri osatzen du lanak, 410 poesia gehi 10 poema luze; hau da, bakarrean poesia-sorta autonomoa osatzen dutenak. Horietatik asko, erdia baino gehiago, lehenengoz liburu horretan argitaratuak. Olerki-sorta luzeak, lehendik argitaratuta egon direnean, ez ziren azkenean liburuan sartu, leku arazoengatik batez ere, eta beren bidea eginda daukatelako. Hauek dira: *Gizonaren aldia* (1990, Ikasbide-Grupo Cooperativo Mondragon, Donostia, 70 orri), Jose Maria

Arizmendiarrietaren omenez egindakoa, eta *Ez zaitetz Gernikara joan, Lauaxeta* (1989, *Idatz & Mintz-Literatur Atalen Sorta*, 18-19 zk., separata, 31 orri), Lauaxetari buruz.

Omenaldiaren ostean, urtebete inguru, hil arteko guztia eman zuen Erkiagak lana prestatzen buru-belarri. Berak zehatz gordeta zeuzkan testuak batu, atondu, berrikusi, ordenan jarri eta edizioaren nondik norakoak zehazten joan zitzaion denbora hori.

Erkiaga idazten hasi zenean, bat egin zuen euskal literaturaren historian poesiaren urrezko aroa osatu zuten idazleekin. Lauaxetaren garaikidea izan zen eta elkarrekin bat egin zuten *Euzkadi* egunkarian, esaterako. Erkiaga Lauaxetaren jarraitzaile agertu izan da beti, eta hala igartzen da bere idatzietan ere, bai idazteko eran bai hari egindako aipamen eta olerkietan.

Ez da erraza Erkiaga literatur mugimendu edo garai batean kokatzea, ibilbide luzea egin zuenez gero. Idazten hasi zenean, literaturaren gaineko eztabaida bizia egon zen, eta bide bat baino gehiago igartzen zen. Eztabaidaren muina poesia gaitzaren eta errazaren arteko hautua zen neurri handi batean; hau da, alde batetik, poesia tradizionala, ordura arte gehien ezagutzen zena, bertsolaritzan oinarritua, erromantizismoaren jarraipentzat hartzeko modukoa eta deskribatzailea. Eta beste aldetik, poesia berria, sinbolisten poesia lirikoa.

Aldi horretakoak dira Lauaxeta ez ezik Lizardi, Orixe, Loramendi eta orduko aldizkarietan idazten zuten beste hainbat bertsolari eta idazle, ez hain ezagun, baina bide erakusle izandakoak. Denekin dauka antzekotasunen bat Erkiagak. Gaietan abertzaletasuna, euskara, natura, maitasuna ageri dira batean eta bestean.

Poesia egiteko moduan herri literaturatik hasi eta molde berrietara egokitzeke ahaleginerainoko tartean daude, ur bietatik edaten dute eta. Hizkeran, irudi sinbolistak erabiltzeko saioaz gainera, euskaran bertan sartutako berrikuntzak ageri-agerian dauzkate batzuek eta besteek. Giro horretan kokatu behar dugu gure idazlea.

Erkiaga Lauaxetarekin lotuko dugu gehien: haren moduko gaiak darabil-tza, eta sinboloetara jotzen du bere olerkietan. Baina haren aldean, deskrip-

zioetarako joera handiagoa dauka eta herrikoiagoa da hainbat ezaugarritan: estrofa mota batzuk, herri kantuen erara atondutako estrofak, herri kantuen aipamenak, konparazioak, paralelismoak...

Pasarte edo olerki zehatzetan beste idazle batzuen traza hartzen zaio, esaterako Eusebio M^a Azkueren ziri-bertsoak gogoratzen dituzten umorezko testuak dauzka, eta haren moduan, antzinako idazle klasikoetara eta mitologia zaharrera jotzen du. Txomin Agirreren nobeletako giroa ageri-agerian dago Erkiagaren nobeletan ez ezik olerkietan ere. Hainbat deskribapenetan Bilintx eta Xenpelarren moduan dabilela esan daiteke. Aipatu ditugu Lizardi eta Loramendi ere, baina Arrese Beitiaren zantzia ere badago testu batzuetan.

Gaiak

Erkiagaren olerkietan era askotako gaiak aurkituko ditugu; berez, edozer da poesiagai. Olerki serio eta jostagarriak ditu, narratiboagoak eta lirikokoagoak. Eguneroko gauzetatik hasi, herriko gorabehera eta pertsonaiak, nahiz barrukoagoak, denetarik aurkituko dugu. Hari nagusi batzuk erakusten ahalginduko gara.

- Aberria behin eta berriro ageri da Eusebioren poesian. Norberaren herriak, harenganako zaletasun eta maitasuna zabaldu beharrak ez dauka neurririk. Eta aberriari lotuta dago gehien-gehienetan euskara, gure hizkuntza, berak hain maite eta hainbeste landu zuena. *Eusko, euskal, euskera* berbak sarri-sarri aurkituko ditu irakurleak testuotan.
- Kristautasuna. Sabino Aranarenetik datorren euskal abertzaletasunean ohikoa den moduan, euskaldun-fededun bikotea elkarri lotuta doaz. Jaungoikoa, fedea, sinesmena, aginduak, Aste Santua, Gabonak... Kristau elizaren jokabidea hur-hurretik segitzen du, baita haren irakasle agertu ere.
- Omenaldi modukoak ez dira gutxi, norbaiti eskainita egindakoak. Oso samurra da halakoetan idazlea.

- Nori idatzi dion, nori eskaintza egin dion, nor aipatzen duen erreparatuta, iturri ezin hobea izango dugu zer zaletasun, lagun eta harreman izan zituen jakiteko.

Idazleen artean sorta handitxoa daukagu, euskal idazleak eta kanpokoak, denak kontuan hartuta. Hemengoan artean Axular, Eusebio M^a Azkue, Resurrección M^a Azkue, Orixe, Lauaxeta, Agustin Zubikarai aurkituko ditugu besteak beste. Kanpokoen artean Juan Ramón Jiménez eta Rosalía de Castro. Idazle ez direnen artean, ostera, Jose Maria Makua, Jose Mari Arizmendiarrirta, Ama Teresa Kalkutakoa eta beste asko. Eta gainerakoan, etxeko, lagun, hurko eta senideak hainbat daude aipatuta olerkietan, izenez zein zeharka.

- Bizitzari eta egunerokoari adi begiratzea gai-iturri amaiezina da Erkiagarentzat. Gertaerak, epika kutsukoak, anekdotak olerkigai bihurtzen ditu, kontakizunak bertsoara ekarrira. Batzuetan doinu narratiboa emanda daude, beste batzuetan beste era bateko gogoeta egiteko aitzakia dira, eta beste batzuetan zirikatzaile bihurtzeko, anekdota edo pasadizoren bat tarteko dela.
- Maitasuna gairik emankorrenetakoa da Erkiagaren poesian. Maite bertsoak, maiteari egindakoak, andre-gizonen arteko maitasun harremanak gai ugaria da liburu honetako poemetan.
- Maitasunak, ostera, beste adar asko ditu. Lehenago aipatu dugu herriari eta euskarari dien maitasuna. Familia edo senideen artekoa ere sendoa da, amarena kasurako. Inguruko gauzen artean ere edozer da maitatzeko modukoa: lekuak, paisaiak, ohiturak...
- Amaren maitasuna: ama pertsonaia apartekoa da poetarentzat, haren maitasuna ez da inoiz agortzen, eta seme edo alabarentzat inoiz ez dago sobran. Amatasuna gizakiaren baloreen artean gorengo mailan jarrita ikusiko dugu. Emakumearen irudia sarritan horri lotuta ageri da. Neskalguna, emaztea, emakumea orokorrean, maite du, baina neurri handi batean andre hori ama bihurtuta ikusten du. Eta behin ama denean, orduan doinua sublimea egiten da, samurtasun eta go-raipamenez josita. Ama hitzaren parean ipintzeko den hitzik ez dugu gure lurraren gainean.

- Lekeitioren historia, ohiturak, lekurik ezkutuenak, herriko kontuak eta kantuak, pertsona ospetsuak, gertaera historiko zein barregarriak. Hori dena jasota dauka Eusebio Erkiagak, esan dugun moduan behatzaile on-ona zen eta. Hango berri zehatz ematen du, sarritan miniatura moduan, gauza txikiei aparteko xehetasunez erreparatuta.
- Kostaldeko herrikoa izan arren, Erkiaga baserri munduari lotuta dago, eta hori agerian dago poemotan. Nekazaria, baserria, eta horrekin lotuta natura, behin eta berriro aurkituko ditugu. Batzuetan ikuspegi idilikoarekin, beste batzuetan lanon nekearen erakusle, baita ere euskaltasunaren errotzat.
- Literatura eta poesia bera gaitzat darabiltza batzuetan, literatura egin ez ezik haren gainean zer iritzi daukan, berarentzat zer den azaltzen du behin baino gehiagotan.

Estilo ezaugarriak

- Erkiagaren olerkietan ez dago zeharkako esanahirik, irudiak erabiltzen ditu, baina ez da ezer ostentzen, anbiguetaterik edo ezkutuko esanahirik ez dago. Normalean, erraz ulertu eta interpretatzeko poesiak dira.

Irudiak apaingarriak dira, baina ez dute interpretaziorako aukerarik zabalik uzten. Joskera aldetik nahiko osoa da, nekez jaten du aditz edo lotura-ezaugarriak. Horregatik, adierazkorrena izanda ere, gozatsua egiten da, ez da trinko-ulertezina, nasai-arina baino, zirrikituetatik ibili barik.

- Herrikoitasuna denean igartzen da Erkiagaren testuetan, halako usaina darie testu guztiei. Hainbat bider aipatzen ditu kantu ezagunak, jendeak edozein aukera daukanean kantatzen dituenak; mitologiaren aipamenak dira halako beste ezaugarri bat; atsotitz zaharren kutsua darian hainbat aforismo sartzen ditu; kostako herrietako beste ohitura bat ere nahiko sarri igartzen zaio, gaitzizenak erabiltzearena. Behin baino gehiagotan azaleratzen ditu halakoak.
- Beste ezaugarri formal batzuetan ere ikusiko dugu herri literaturaren eragina, errepikapenetan, adibidez.

- Poesia askotan erritmoa eta musika ageri-agerian sentitzen dira. Ezaguna da idazlearen musikazaletasuna eta olerkietako batzuk kantatzekoak dira. Baina ez hori bakarrik, olerkien erritmoak, egiturak eta soinuak musika sortzen dute, eta kantuan moduan eroaten gaituzte testuetako asko eta askotan.
- Neurriei dagokienez, bertsolaritzako neurrietan egindako poema asko eta asko aurkituko ditugu: zortziko nagusi eta txikiak, laukoak...
- Liburuotako olerkietan indar eta garrantzi handia hartzen dute soinuek eta oro har zentzumenekin zerikusia daukaten irudiek. Hotsitzak esaterako, oso adierazgarriak dira, zerbaiten izena esan barik zer den erakusteko bidea dira sarritan.

Haizearen xilibitu
zakarra lazkiro da ari,
lauorri jartzeko gisan.
Maite maitena, 1964.

Soinuen bidez adierazi nahi ditu azaltzen dituen kontzeptuen irudiak: lehenengo lerroan s/x/i soinuen bitartez haizea adierazi; z/k/rr/k/i/r/i bigarren lerroan eta rr/r/k hirugarrenean, txistukari eta kontsonante gogorrak haize indartsua adierazteko.

- Itsasoa eta Lekeitio beti daude era batera edo bestera, agerian edo irudian, hizkuntzan edo erreferentzietan. Eusebio Erkiaga ezin da aditu Lekeitio kontuan hartu barik. Inguruko parajeak ere aipatzen ditu, eta edozein kasutan kresal usaina dario liburuari orokorrean, gainerako idazlanetan gertatzen den moduan.
- Olerkien neurriari erreparatuta, denetarik aurkitu dugu: bertso lotuak eta libreak, estrofatan zatituak eta errenkada luzeak, atalka banatuak ere bai batzuk. Beste horrenbeste esan daiteke errimaz ere, batzuetan errima osoa egiten du, baina beste askotan hoskidetasunean oinarritutako puntuak egiten ditu. Soinuen efektua garrantzi handikoa da gainera. Sarritan, bertsoaren barruan ere jokatzen du antzeko hotsekin.
- Neurri klasikoak ere baditu, sonetoren bat tartean dela. Baina egitura berriagoak egiteko ahalegina ere badago, bertso sortak libreago lotuta.

Asko jokutzen du lerroen koskarekin, hasierako ertzak barrurago edo kanporago jarrita, testuari itxura aldetik irudi ezberdina emanez. Bartzuetan olerkien forma aldetik jostalaria da, berbak dantzan baleude moduan eta irudiak eginez jartzen ditu eta. Irudiok, gainera, esanahiarekin lotuta doaz.

- Erritmoari eta musikaltasunari lotuta datoz bertso-neurri asko. Egitura lotuetan mamia horren martxan doa, baina gura badu beste efekturen bat adierazi, ez dauka eragozpenik neurri lotu hori hautsi eta indar berezia emateko, edo nahi den eran molde bat aldatzeko. Esaterako, estrofa bati lerro batean berez ez dagokion neurria ematea.
- Erkiagarentzat euskarak sekretu gutxi dauka, ondo ere ondo ezagutu eta erabiltzen du. Hango zein hemengo euskara izan, berak leku egokia egingo dio, berba bakoitzari dagokion esangura, xehetasun eta kontestualizazioa itu-itudan asmatuta. Erregistro aberastasun ikaragarria dauka eta konnotazio edo aparteko erabileraren bat bada ere, dena kontuan hartuta erabiltzen du. Ahaztu barik, gainera, bera autodidakta dela eta ez zeukala eskura gaur egun hiztegieta daukagun iturria. Erkiagaren kasuan hiztegiak beretzat iturri izan barik, bera da hiztegiileentzat iturri agorrezina. Ikusi baino ez dago Retanaren *Diccionario de Autoridades del Euskera* delakoan zenbat eta zenbat adibide diren Erkiagarenak. Ordura arte beste inon jasota ez zegoena hor aurkituko dugu, eta adibidea sarri-sarri Erkiagaren idatzietatik aterata. Bazekien Aita Lino Akesolok gure idazlearen zehaztasunaren berri, bere hiztegirako lanean ibili zenean. Euskal Herri osoko euskara-moduak, eredu zahar eta berrietako ezaugarriak, denetarik darabil Erkiagak. Bizkaieradun idazlerik eredu-garrienetakoa izanda, euskara-molde guztiak batzen ahaleginik handienetakoa egindakoa ere bada.
- Horrez gainera, hizkuntzarekin olgetaria da, berba-jokoak egin, soinuen antzekotasunaz zentzumenak gozatu, adierazkortasunari bidea eman, horrek guztiak bere lekua dauka gure idazlearen olerkietan. Lekeitioko berbeta ondo sendo errotuta dauka eta behin ere ez dio uko egiten. Baina beste joera eta euskalki guztiak ere ondo ere ondo ezagutzen ditu, eta ez ezagutu bakarrik, baita erabili ere.

Amaitzeko

Erkiaga idazle oparoa dugu, idazlan asko utzi dizkigu, era askotakoak, aldi edo garai oso ezberdinetan egindakoak. Horregatik, aldian aldiko giroarekin lotuta aztertu beharko lirateke, osotasunean homogeneotasuna ematea gaitza da eta.

Zer edo zer azpimarratzekotan, hizkuntzaren erabilera zehatz-gozatsua gogoratuko nuke. Idazleak hitzekin jolastu egiten du, baina beti ematen die lotura egokia, berez-berez irakurtzen joan ahal izateko.

Gai narratiboak, lirikoak, umorezkoak, etnografikoak, era guztietakoak aurkituko ditugu. Bakoitzean deskribapen zehatz-ugariak, aipamen jakingarriak, lerrokada ondo josiak eta elkarrizketak nagusituko dira, edukiaren arabera.

Denetan dauka aparteko garrantzia erritmoak, musikaltasunak, soinuekin egindako jokoak, errimaren oihartzunak. Zentzumen guztiak bizi-bizi daude testuetan, sentsazioen poesia dela esan daiteke. Era berean, eguneroko bizitzako gaiak darabiltza, eta inguruari ematen dio lekurik handiena. Behatzaile handia da, sentsibiltate handikoa, hurrean daukanari zehatz erreparatzen diona.

Sarritan ondoan daukagunari, edo egunero ikusten dugunari ez diogu garrantzirik ematen, eta hori poesiagai bihurtzen jakin du Erkiagak. Hor dago bere ekarriak handienetakoa segurutik.

Bibliografia

ERKIAGA, E, 2006, *Goizean eta arratsean. Eskubete neurtitz 1 eta 2*. Bilbao : Labayru Ikastegia-BBK Fundazioa.

ZUBIKARAI, A, 1994, «Bizkaierazko literatura idatziko idazle bi», *II. Jardunaldiak, Bizkaiko euskera bizkaiera?*. Bilbao : Bilboko Udala, 123-136.



Kresalaren goramina

MEABE, Miren Agur
Idazlea

Hamazortzi bat urte izango nebazan Eusebio Erkiagaren barri izan neba-nean, Labayruko udako ikastaro baten.

«Nor da Eusebio Erkiaga? Ezagutzen dozue?» galdetu neutsen bueltarakoan etxekoei, eta hareek erantzun: «Ezagutuko ez dogu ba! Gizon altu argal bat, antiojoduna, atititaren laguna dana... Bilbon bizi da, baina udan etorten da, urtero, eta parkean egoten da leiduten, gerizpetan, Hondartxikiari begira. Zer ba?». Eta nik: «Idazlea dalako». Eta etxekoek, barriz: «Bai, abila... Lekitxori buruz idazten dau, baina guri gatx egiten jaku».

Jaioterria sarritan izan zan Eusebioren sormenaren ardatza. Kutun ebana ederretsi nahiak sakatuta, Lekeitiori kantaten eutsan ohitura-koadroen estiloko erretratuak eginez. Kresal-usaina, kaigaineko irudiak eta arrantzu onaren poza, antzinako sinesmenen hutsminagaz batera, gazte-gaztetako olerkietan be topaten doguz.

Lekeitio! (1934)

I

*Putz, putz, ipar-haize mehea,
hondarrez uraren behia;
baltz-moltsoka jolasketan
tutulutik goirantz keia.*

Euskera. 2012, 57, 3. 585-602. Bilbo
ISSN 0210-1564

*Kaia, apain, lehor-ertzean
itsasoaren aurrean;
ontzi askoren etxea
uretan, kai-barrenean.*

*Oihal, sare ta burdina,
nunahi oraldi mamina;
egurats garbiaz nahaste
kresal-usain atsegina.*

*Luzangak hiru-lau nasa
–nun dago gure lanbasa?–
nasa bakotxak ugari
harri-mailadi erreza.*

*Talatik begiratuta,
ura zeruaz mosuka;
erdialdean lerdenik
islea uragaz muturka.*

*Lehorreruntz urre-jantziz
hondartzak hare ta ur garbiz;
ausart eta nasai samar
gure barrakatzak, barriz.*

II

*Ai, gure herriko kaigana,
danetaz kutun dodana.
Nun ete da antzinako
lekittarren sinesmena?*

*Atzerri-usain zatarra
honaino be errez heldu da;
lehen euskaldun ginean,
gaur erderean barrura.*

*«Lehor ta itsasoz ahaltsu»
asabek esaeratsu;*

*gerokoan be bide horri
jarraitu behar deutzazu.*

III

*Arrantzuan ibilita
ontziak etxera jita;
kaian bizi direanak
betiro luzeretxita.*

*Lemazainaren semea
mutikotxu errimea
ontziei begira dago
ta dino: «Haxe, gurea».*

*Gerizpearen susmora
autuan hiru agura,
sarri itsasora begira,
itsasora ta zerura.*

*Nasan dagoz neskatilak,
bidean datoz mutilak;
berbaroak urratu dau
aurreko une ixila.*

*Beterik datoz ontziak,
karelak euren neurriak;
albista onak portuan
argitzen ditu begiak.*

Halako egun baten, gure amak Eskolapean eukan dendan agertu jakun Eusebio. Dendari-laguntzaile ibiltzen nintzan oporretan, ordu pare bat egu-nero, bainu-jantzien eta arropa meheen sasoiari. «Zeu zara Pedro Mariren lobeia? Entzun dot zeuri be gustaten jatzula lumeari eragitea...». Lumeari eragin... Bai, orduantxe hasita nengoen-eta nire lehen idazlanak taxutzen, ipuin-sariketetara aurkezten, *Sustrai*a herriko fotokopia-aldizkari xumean nahiz *Idatz & Mintz* dotorean testuak argitaratzen. Amak, mostradore atzetik, keinu bategaz adierazi eustan joateko Eusebiogaz buelta bat emoten.

Arranegi aldera egin genduan. Eguerdi haretan beste pauso bategaz zapaldu neban auzoa, aitaren familia Atxabal kalekoa zan arren, amaren partekoa gerra ostean Mendexatik kalera etorritakoa baitzan, eta Goikokalean bizi ginan, «txaputxeruen» giroan. Beste berba batzuekin esanda, lekeitiarra banintzan, baina ez arranegitarra.

Eusebioren ama be baserritarra zan, Natxituakoa. Akaso horrexegatik marraztuko eban hain zehatz eta idiliko *Aititaren basetxea*. Olerki horrek badauko Elizanbururen «Ikusten duzu goizean...» kantuaren oihartzunik, baina xehetasunez hornituagoa da. Irakurtean, *Mary Poppins* filmeko eszena bategaz gogoratzen naz, zeinegaz eta tximinia-garbitzaileak parkeko harlauzetan koloretako klarionekin paisaia bat marrazten dauanekoa. Maryri eskutik helduta, salto egiten dabe biek marrazkiaren barrura, udaberri beteko toki batean agertzeko. Ahal balitz, jauzi txiki bat egin, eta aititaren basetxera inguratu, egun bakar baterako sikiera, abendua izan arren...

Aititaren basetxea (1931)

*Bideak zehar basorantz doa kirrin-kirrinka burdia,
hegan ez dabil, kikilik dago udazkeneko eulia.
Gabonileko aldian gagoz: gabonileko eguna
argidiria izan daneko datorkigu gau iluna.
Aita-semeak basorantz doaz behi-buztarridun burdiaz
basetxe ondora ekarteko beterik azpigarriaz.
Seme-alaba txiki sendoak joan zirean eskolara,
aitita zaharra ohetik jagi ta berehala sutondora.
Ezkaratzean sehaskatxuan datza negarrez umea,
bere zaintzaile arduratsua amatxu bizkor ernea.*

*Basetxea sendo ta zaharra da, harrokeririk bakoa,
gure ibar eta mendietan direanen antzekoa.
Basetxe aurrez labagelea, urruntxuago osina,
atartean dau burdilekua, etxaburuan patina.
Basobidean dau iturria bere izenez Urgozua,
hango uragaz beterik beti gure edarra pila.*

*Etxe ondoan ibiltzen ziran oraintsurarte oiloak,
hara ta hona gelditu barik arakaturik soloak.*

*Etxetik dakust orain basoan euren daben tokia,
zur ta zohiakaz eginak ormak, teilatutxua gorria.*

*Beheko erreka ondoan dago arditxabola lehen zana,
gaur ardi barik orbel ta iraz beterik egoten dana.*

*Intxaurrondoak, mahasti txikerra, kerixa eta ikoak,
basalorak eta sagastiak, madariondo sendoak.*

*Landa ta mota, larra ta baso basetxearen bazterra,
bekazaleak arduraz zaintzen dakian bere altxorra.*

Kontu-kontari aritu ginan, ni belarriak belaki bihurtu nahi eta ezin, eta bera bere etorrialdia baretu barik. Kinada batek erabilen: bere oroimenaren maminean bizi ziran lagun berezi batzueganako txera kutsatzea gazte jakinguratsu ezjakin bati.

Orduak jo ebanean, etxera lagundu eustan. Gure atariak burdinazko hesi baltza eukan, ate-orri bi, maratilagaz ireki eta ixtekoak. Bera alde batean eta ni bestean egon ginen, antzinako korteju-kontuetan neska-mutilak egon ohi ziran lez.

Behatzaile trebea izanik, aspaldiko denboren eta ohituren azalpen gustagarriak emoteko gauza zan Eusebio, prosan nahiz poesian. Halandabe, nik neuk koplak zaharren moldera eginiko neurtitzak estimaten deusadaz gehien, izadiko irudiak eta maitasun-eskea lotzeko eukan fineziagaitik.

Neurri eta doinu (1934)

*Urdin, udalehenex goia;
musker pampina zelala;
ene oldeak tai bage dauka
norbaitenganako nahia.*

*Urak lastan hondarrari,
haize meheak hostoari;
kutuntxuaren irribarreak
atsegin, maitaleari.*

Lan eragile, akulu;
 ilun gauean ikuilu;
 neskatilatxu baten bihotza
 enetzat ezti-gordailu.

Hatzak soina dau sendoa:
 haretx mardulak erroa;
 gure nahitasun berri hau bedi
 enetxu, areagoa.

Muino gaztean gaztelu;
 ezkaratzean zizelu;
 lagunak zintzo maite bazaitu
 bedi dana abespelu.

Eguzkik argi-erreinu;
 adu on sorginak keinu;
 neska pinpirin ezpan gorriak
 ojaldu deust maite-doinu.

Sapailoŕean enarak;
 solo ondoan burdinarak;
 sutei gorian artez landuta
 bion irrirts eta lerak.

Baratzean lili guri;
 larran artaldea zuri;
 gure alkarmin on egartiak
 edur barria dirudi.

Horma zaharra laztan huntzak;
 olio gozoa hontzak;
 ezotu begi gure amesa
 eten barik maite-inontzak.

Bizkor, usoak hegala;
 eder, udaran itzala;
 neskatoaren begiradeak
 dirdizean dau zidarra.

Eder, hitza mingaŕnean;
 guraria barrenean;
 bihotzak tinki alkartu beitez

urrunean nahi hurrean.

*Eder, udaondoꝝ uzta;
bazkal ostean loxusta;
inork eskeini arte ezin daiket
maite-edontzia musta.*

*Eder, alasan mertxika;
neskatxak alai, maixika;
euren irribarre gozoagaz
zoratu dabe karrika.*

*Bihotzak alkarri tinka;
maho gorriak zotinka;
ihunbarreko orduetan
gazteñoak maiteminka.*

*Ipar-haize bigunak putz;
txibiek karpinei zaputz;
kezkaz itxaiten dagoanari
neska-lagunak ezin huts.*

Gure atarikoak ez ziran izan maitakeria-kontuak, ezta hurrik ere, Errepublikaren garaian euskal literaturak ezaguturiko pizkundeari buruzkoak baino: Orixe zala, Lauaxeta zala, Lizardi zala, Loramendi zala... Aldi bakan haretan entzungo ebazan, estrainekoz eta atzenekoz, gure etxeko behebarruak halako izenak, eta baita be 1936ko ekaineko Sanpedroetan Lekeition antolatu zala VII. Olerti Eguna, Azkue aita-semeak omentzeko.

«Estepan lagun handia neban, mutil behargina, zorte txarra izan eban gizajoak... Bizkaiko olerkarien goiko erpinean ipini eban Aitzolek, baina, nire ustez, haren gainetik egoan Orixe, sakonagotik joten eutsan poesiari eta...» aitortu eustan.

Egitasmo handi baten berotara batutako kideak be aitatu eustazan, Augustin Zubikarai eta Joxemari Arizmendiarrieta, alkarlanean jardundakoak *Eguna* egunkariaren sorrera eta garapen laburrean: «Izan be, orduko aberzale askoren pentsamenean, herrigintza eta fedea alkarri atxikita egozan, eta dana multzoan hartuta egiten genduan beharra». Halan azaltzen dira

hiru lagunak mendira eginiko txango honetan, gogo lurreko arduren tenkadan, «negar-herritik» gora-nahian, zeruko ametsen premian.

Goraminez (1951)

Mendi garaian eder, lizar, hurritz, pago;
izadia eder da, Jauna ederrago.
Beti gora nahirik du gizonak gogo,
gorputzetik arima askatua bego.

Muinoz muino goraka zerurako mailak,
erpin garaienean arrano harkaitzak;
goian zerua zabal, hodeiezko larrak,
mugaz ahantzi dira haizeen hegalak.

Arruetako bake aspaldi gezurra,
bake ediren ezina, larre hutsa lurra;
aberekoa baitu gizonak makurra
ta areagotzen orain gure soin bihurra.

Utz, adiskide onok, ibar urduriak;
utz, ordu batzuetaz eta igan mendiak;
lainoen pare bitez arima intziriak,
arin, goiaren gale, lurrez biluziak.

Aloñaren maldako gandor medarrean
hirur adiskideok uda goiz batean
ikusia nagotzu zorion betean
mintzaldi gozoetan, asper ezinean.

Mendiaren ederra artalde txuriez,
txabola zahar batzuk zurezko hesiez;
ardiak nare han hor belar mizke galdez,
ikuskaria hiretzat, adiskide apez.

Behera xamarrago eleiz aipatua
Andre Mariren alki askok ikertua,
mila eratakoen joera lekua,
gizabihotzen berri, hik, filosofoa.

Eta hirugarrenak —beti ametsetan—
galdegin zerauen, zer ote zeruetan?

Hemengo berrietaz betiro eletan
 ari ordeztu, zergatik ez amets goietan?
 Ta solasok gozaro entzun bitartean
 Iguzkik irrialdi hodeien artean;
 hodei txuri apainak urdin nahastean,
 lerra ez dugu eder pagoa hainbestean.
 Oi, mendiaren deia, sorginkeriz bete.
 negu ordeztu nahiago dut udako epe;
 nigar herri hau dugu arru beltz, negute,
 non ote dauka hemen zorionak ate?
 Hiriko bizi behar latz humek hezita
 halaere ez utzi goibide bisita;
 gauetz ilargiari zakurrak ausika,
 hekien antzora gu maiz intzirika.
 Baina ez hasperena soil, iguzkiari,
 iguzkia ere ba, noizpait itzul ledi;
 iguzkiaren Jabe, zeruen Nagusi,
 Jainko Eder bekigu minon osagarri.
 Mendi garaian eder urritz, pago, lizar,
 zeru urdinean are, gau zardoiez izar;
 soin ustelkor hau dugu hemengo hirizar,
 Hiri Berrian ikus dezagula elkar!

Ezin ukatuzkoa da Lizardiren ikutua eguzkiaren pertsonifikazioan, hizte-
 gian eta izenondoen erabileran, edota inbokazioetan; ezta be Lauaxetak
 Artxanda gainetik barruntaturiko uriko bizimoduaren eta herriaren bizi-
 moldearen arteko kinkarena. Edukiaren aldetik, bere garaian kume dana-
 ren sinesmena, piztuerarena –«soin ustelkor hau dugu hemengo hirizar»– is-
 latzen dau; eta formaren aldetik, molde klasikoetarako morrontza.

Hori gorabehera, Eusebiok izan eban ahapaldi klasikoetatik aldendu eta
 beste bide batzuetan esperimintatzeko borondatea. Gatx egiten jakon, bai-
 na, errebeldea izatea: bertso-lerro libreekin olgetan hasten zan, apur bat
 tentatu, baina benetakoagoak sentitzen ebazan tradiziozko neurtitzekin egi-
 niko jolasak. Testu honetan ederto esplikatzen dau barritzeko ahalegina, bai

lerroak antolatzeko eran, bai hitz-taldeak neurri jakinetatik apurtzeko jarre-
ran, bai bere ezintasunak aitatzeko zintzotasunean.

Olerki-matxinadea (1952)

I

Gorpu-lorra

Kristalezko kutxa baten
maitekiro gorde dot
gari-lastoz bildua
nire bertso zaharren liburua.

Luma igerra, ugartua,
lurpean dot sartua,
galtzairuzko tresna motz.

Urrezko ortz zorroztua
hartu nahi dot,
barriraztua barik
jaiobarria izan dadin
nire asmoa.
Halan be, lehengoak
esku ta burua.

Betor, ba, nigana,
suspertze berdinbagea,
edur-urtute osteko
iturri gizen betea,
ta irakinerazo odol barria,
mordo maminen ardau gorria.

II

Erbestetuak

Ondarزابالera dei egin deutset
banan banan, bertso lotuei;

Lea ibaiaren azkenertzera,
 zortziko nagusi ta txiki
 ta enparaukoei.
 Uretara bota dot
 neurri kordela.
 Zergaitik gure hizkerea
 Lot zanaren emaztea bezela
 geldi, nagi, aldaezina,
 neurri jauntxoaren joñu egina?

Bertso arinez
 bete dagiguzan paperak,
 hitzak banan zenbatzeke.
 Hemen ditut erreskadan
 deituriko eredu zaharrak:
 hamar ta zortzi,
 zazpi ta sei
 eta abarreko hitz batzarrak.

–Erduze, maiteok,
 orain arte jauntxu
 zakiguzanok.
 Eta horretara ezkerro
 bego Berzeo
 alde batera,
 ta ez neurtu guk
 hatsez hats lehengo antzera.
 Sasoia zan, bai gero!

Ta orain goazan, eskutxutik,
 izaroko horma-bidean zehar, kontuz,
 txirrist egin barik.

Hor gertatu deuntsuet
 atseginezko ugarte,
 larran ibili zaitezen
 aspertu arte.

*Itxas urdina gerribiran,
urrezko hondartzak urabeheran.*

*Neguan, gordezuloa babes
ta udan, pinadian geriza ederrez.
Ez zan hain gozo, ai ene,
bere jaunarentzat Muñatones!*

*Hor edonoiz, kresal-usaindun orroa,
–mugabako zurrunbiloa–
udagoienez taldeetan
pasako usoa.*

*Munduko geznari
hango ta hemengo barri
itsastar ibiltaunak
santza, kaio ta kalatxori.*

*Antzinako komentu zaharraren
harri bananduetan
salmo samurberak
otoiez kantetan.*

*Ta ni, noiznahi
zeuen adi,
ta gero be,
zeuekin sarri,
auzokide kutun
berberton, edegiak leiho ta ate,
zuekandik ez urrun
harrikadea bitarte.*

*Lumentxaren oinean,
neure habia maitean,
eliza ondoan,
hilerriaren alboan.*

Behin baino gehiagotan egon ginan handik aurrera.

Atari-ertzeko solasari Orixerenganako mirespena lotzen deutsodan moduan, herriko beste bazter batzuetan beste lotura batzuk jatortaz, eta nago, atzera begiratuta, esangura gehigarria hartu geinkiela toki horreei, ze, esate baterako, non eta Abadeen Moilan aitatu eustan zein zan bere prosazko eredu txalogarriena, Juan Bautista Eguzkitza, Lemoako abadea.

Eta beste behin, Talan, total gutxien eban poema baten fotokopia emon eustan, patrikaratik toles eginda atarata: Arestik Bartzelonako estudianteei eskainitako *Maldizio betikoa*. Betondo ilunez galdetu eustan: «Honeek dira erabili beharreko berbak? Hau poesia ete da ba...!». Eta nik: «Arestiri esker barritu da euskal poesia baina...». Eguraldi lanbrotsua egoan, behegaina bustita eta olatutzarrak braustadaka, oldarka, Bilboko poetaren izaerari egokion lez.

«Tirixilik...!» esan izango eutsan Eusebiok Gabrieli aurreneko kolpean, haserrebeidea emoten eutsolakoan, baina seguruenetik, segituan esan izango eutsan, apal, «Goizan ba!», aurrera egitekotan alkarzaletasun onbera beharrezkoa dala sinistuta.

Sakabanatzen (1989)

*Oi, Aberri maitea,
aspaldiotan saminez betea.
Seme-alabok
—erbestekoen menpe egon arren—
ez gara alkarregaz ondo konpontzen.*

*Berba on eta bigunen bitartez,
barriketaldi baretsuz
ezin edo...
Indarrez,
iraultzez,
odolez beharko ete?*

Taldeak eta lerak,

*bide ezbardinak
 aukeratzen ditugu,
 eta horra hor gure neke
 ta atsekabe,
 sumin eta saminak,
 arimako minak,
 pozik bako etxakide,
 noiz arte...?
 Noiz arte Tubalen lilurak?
 Aitorren laino-amesak?*

*Bihotzen gogorberotasuna,
 adimen muinen uxatu beharra,
 alkartzearen ezina,
 barriro ta barriro
 mendiko negarra.*

*Aberri buztarpetu honetan
 aspaldiko dazaugu
 gero ta zitalago da samina.*

Begi onetik hartu ninduan Eusebiok. Halantxe, iruzkin bat egin eban *Uneka... gaba* lehen ipuin-liburua kaleratu nebanean, 1986an. Modernoa irizten eustan nire estiloari, «nitasuna» agertzeko ausardiagaitik edo. Urte batzuk geroago, Mertxe emazteak Rodriguez Arias kaleko etxean prestatu-tako merienda gozatu bitartean egin eutsozan hainbat hizkuntzazko ohar nire lehen poema-liburua izango zan paper mordoari.

Ordurako irakurrita neukazan *Arranegi* eta beste lan batzuk. Ezin esan istorio hareek goitik behera harrapatzen ninduenik, azken eleberrigileen lilurapean nengoalako, baina Eusebioren idazkerari aparta neritzon: herri-herriko berben ondoan (matarlako, didar, auskaka...), berba exotikoak topaten nebazan (kera, egitada, zertzelada...), neure ariketetan uztartzeko apuntaten nebazan, idazle-kutsu jantziagoa emotearren.

Inoiz edo behin eskutitz labur edo oharren bat be bialdu eustan, laguntze aldera.

Bilbon, 1987-IX-11

Miren Agurtxu:

Hona heldu barri ni, eta «ZER» aldizkariak, urrillekoak, ipuin-sariketea berririo be eratu dauala dakust. Asti laburra, arean, hilla honen amairako bialdu behar eta. Dana dala, ipuintxu bat –hiru-lau orrialdekoa asmatuteko– «mutilla» zara zeu! Gertu, ba, eta ekin.

Jakina, «Euskerazaleak» ez dabe h-rik ikusi gura. Beraz, h-rik barik idatz beharko.

Gura dozun arte, goraintzi.

Erretilu zilarkara bat eta kristalezko edalontzi landuak hartu banebazan ezkon-oparitzat Eusebioren eta familiaren partez, zelan ez jatan egokituko, ba, Lekeitioko Udalak Eusebioren omenez antolaturiko jardunaldietan hizlari izatea? Adituarenak eginez, laburrean, hauxe esan neban haren nobelagintzaren gainean: uriko giroa ekarri ebal (bere garaikoen baserri girotik desbideratu) eta deskripziorako joera nabarmena eukala, dokumentaletako informazioa eskaintzerainokoa; kutsu didaktikoa edo ikasbide morala erielaren lanei; umorez, ironiaz eta zorroztasunez janzten ebazala alkarrizketak, lirikarako isuria inoiz bazterrean laga barik; ahozko hizkerarenganako atxikimendu indartsua eta herri-literaturaren eragin zuzena erakusten ebazala, testularitzaren teknika, esaera zaharrak, bertsoak eta kantak tartekatzeagaitik; literatura eta kultura garaikidearen eta unibertsalaren erreferentziak egiten ebazala...

Eta gaien aldetik, baliotsuak zirala harentzat amatasuna, emakume jatorraren eredia gizonarentzako aldakuntza-ingar gisa, ohituren aldeotasuna, erlijioaren defentsa, izen onaren ardura, edota zorigaitzaren agerpen errealista.

Izan, zirikatzalea be bazan Eusebio. Urteen joanean, jarraitu eban antzinako irudiekin emoten sorlekuaren irudia, baina eztenkada malenkoniatsuz gatz-ozpinduta. Modernitateak ernegazio-puntua eragiten eutsan. Eta urteak joan ahala, idazkera ere soildu egin eban, hizkera errazteak herriko irakurleak erakarriko eutsozalakoan edo. Sanantolinetako programetan agertu zan, urtero, 1978tik 1989ra bitartean Eusebioren olerkiren bat, batean masta-puntakoari, bestean elizari, hurrengoan Antzoziz lurmurturrari edo Karraspio Txikiri abestuz.

Txalupetxeak (1989)

*Hainbeste txalupetxe
zirean antxina,
bakotxak berak eukan
baztertxu jakina,
etxean bazkari ta
afari arina,
lauretako gura
aparte egina.*

*Lauretan gura eban
umeak ogia;
gizonak, barriz, ogi
eta lazeria:
ogi barruan jaki
apurra iratzia,
eskua atzekaldean
eta han, amuzkia.*

*Txikito kosterarik
ez egoanean
egotaldi nasaia
taberna ilunean,
kuartilerdiko pitxar
zuria aurrean,
mahastiko ur baltza
pitxar barrenean.*

*Pitxarrekoa astiz
edan bitartean
batzuk kanta kantari
geratzen zirean:
«Markesaren alaba»
kantuen artean,
bihotzak samur-samur
ilunabarrean.*

«Amoriuu zeukan
barrena sartua»
holan amaituten
zan bigarren bertsua.
Markes baten alaba
txit maitemindua,
arrantzale bategaz
zorabiatua.

Arrantzaleen kanta
bigun gozatsuak
betiko galdu ditu
giro modernuak;
han amaitu zirean
hango berbaruak...
telebisteak gaukaz
gaur menperatuak.

Zer ikusiko gagoz
eta zer entzungo,
tresna zirina ez da
ixiltzen egundo,
tramankuluak hainbat
kanal eta zingo
estresak edo expresak
gaitu danok jango.

Gaztaroa eta helduaroa joandakoan, bizialdiaren zorabioan ezagututako guztia eskertu beharra igarrita, tristeziak irabazi eban tokia Eusebioren lerroetan. Baetorren agur baltza esateko ordua. Alabaina, gogoan daukat berak txantxetan esaten ebana: «Lekeitioko atso-agureek ez dabe sekula nire leihopetik pasatu nahi izaten». Zergaitik hori? Ez kalea aldapatsua eta iluna zalako –izan be bada–, kanponsatuko bidearen hasieratxoan egoalako baino.

Heriotzak Eusebio harrapatu ebanean, Bartzelonan nengoan lan-kontu batzuetan, eta etxekoek zuzenean deitzeko akordua izan eben. Orduetik atzera samar kaleratu zan nire lehen poema-liburuxka, idatzi baino urte pi-

lotxo geroago: *Oi, hondarrezko emakaitz!* Argitaratuta ikusi ezin arren, zu-zena iruditu jatan berari eskaintzea, estimazioaren erakusgarri. Geroago, pertsonaiatzat hartu neban *Urtebete itsasargia* gazte-nobelako kapitulu baten, gerra zibilaren giroko eztabaida politiko baten aitzakian. Pozarren egongo litzateke bera, nik uste, lagun, erkide eta lankide baten eskutik paperezko Eusebio bihurtuta.

Atzenerantz (1989)

Geldiezinak dira aldiaren
erlojuaren besoak;
besoek garoiez atzenerantz,
apurka-apurka beherantz.
Itxaropenaren izarrak
dirdisak makaltzen deuskuzanean,
zalantza bildurrantza
sortzen da bihozpean,
ez jaku argitasunik sartzen
leihorik zabalenenan.
 Iluntzea da, ta zulora deia,
 dei ixila, dei lupua, ankerra.
Zorabioa amaitu-hurren da.
Lagunei, gauzei, etxekoei, guztiei
agur egin beharra.
Agur betikorra.
Agur baltza.

* * *

Oharra: Eusebioren olerkiak *Goizean eta arratsean* liburutik hartutakoak dira, Igone Etxebarriaren edizioa. Sutondoan sorta, Labayru ikastegia, 2006

Eusebio Erkiagaren omenaldia: hondar hitz

HARITSCHELHAR, Jean

Euskaltzain emeritua. Literatura Ikerketako batzordeburua

Hemen mintzo naiz Literatura Ikerketako batzordeburu gisa. Alabaina, LIBek du antolatu goiz honetako ekintza Eusebio Erkiagaren omenaldia Deustuko Unibertsitateko Atrioan.

Lehenik nahi nuke eskertu Deustuko Unibertsitateko errektoreordea, Roberto San Salvador jauna, egin digun harreraren gatik, utzi duelakotz guretzat gela eder hau. Eskerrik beroenak doaz ere goiz honetako mintzalariei: EHUko Roberto Mielgo irakaslea, Ana Toledo euskaltzaina eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, Igone Etxebarria euskaltzain urgazlea, Labayru ikastegikoa, bai eta ere Miren Agur Meabe idazlea hautatu dituelakotz Eusebio Erkiagaren idazkietan zenbait zati interesgarriak, erakutsiz zein zabala den haren literatura eremua.

Agurtu nahi dut ere lehenbiziko lerroan dagoen Eusebio Erkiagaren familia. Nihaurek ezagutu dut Eusebio, nahiz ez naizen maiz kurutzatu harekin. Egia erran, garai batean, hileroko biltzarrak egiten ziren Donostian, toki egoikia zelakotz denentzat, bainan, zuen lanaren gatik, ez zen usu agertzen.

Agurtzen ditut ere gela honetan bildu diren guziak Eusebio Erkiagaren oharatzeko, pozik ikusten dudalarik Deustuko Unibertsitateko ikasle andana bat haien artean.

Baliatzen naiz parada honetaz adierazteko zer den Literatura Ikerketako batzordearen lana. *Iker* Saileko bosgarren batzordea da eta kezkatzen da

bereziki irakaskuntzak, izan dadien bigarren mailakoa edo unibertsitatekoa, behar dituen tresnetaz. Duela lau urte, 2008an hain zuzen, kaleratu du *Literatura terminoen hiztegia* 800 orrialdeko liburu gotor bat bere 545 sarrerekin, bakoitzak daukalarik bere adiera eta euskal literaturan dituen adibide bat edo bertze. Hots, liburu edo hobeki erran hiztegi baliosa eta baliagarria, zerbitzari paregabekoa bai unibertsitateko irakasle eta ikasleentzat bereziki. Geroztik, bertze lan batetan sartua da LIB deritzan batzordea, euskal literaturaren antologia bat, lehen liburukiak biltzen dituela Erdi Aroko eta XVI. mendeko idazleak. Datorren urtean, 2013an beraz, argitaratuko da lehen liburuki hori.

Guk, euskaldunok, badakigu Euskal Herriak duen altxorrik nagusiena euskara dela, gure arbasoek sortua historiaurrean eta geroztik erabilia bere tokia zainduz, indoeuropar hizkuntzen kontra borrokatuz.

Bainan euskararen lorategia euskal literatura da, ahozkoa lehenik eta idatzia 1545ean hasiz, orduan Etxepare Eihalarreko eta Zaroko erretoreak aldarrikatzen zuela euskara jalgi zadien kanpora, plazara, mundura eta munduko hizkuntzen dantzara inprimatua zenez gero.

Hortakotz LIB batzordeak eginbidetzat dauka euskal literaturan agertu diren idazleen ohoratzea, kongresu batzuetan, hala nola Oihenart XVII. mendeko olerkari zuberotarra, Anton Abbadia Lore Jokoen sortzailea XIX. mendean, edo jardunaldietan; bizpahiru adibide ematekotan Elizanburu, Oxobi, Lafitte eta igaz Xaho Iparraldekoak eta berdin Hegoaldekoak Kardaberaz, Ubillos, Lizardi, Lauaxeta bai eta egungo Eusebio Erkiagaren ohoretan. Mintzaldi guziak agertu dira, kongresuenak *Iker* bilduman eta jardunaldienak *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkarian.

Berriz ere eskerrak bihurtuz, bai mintzatu direnei eta bai ere entzule guziei, bukatutzat emaiten ditut Eusebio Erkiagari eskainitako jardunaldiak.